

Cycle taldea

Denboraldiko azken saioa egin zuten Jam-en
KULTURA, 25



Mondrak 1-1 berdindu zuen Mutrikuren aurka

Aloñak eta UDAk irabazi egin zioten Pasaia eta Ordiziari hurrenez hurren
KIROLA, 12-13

Velez de Mendizabal

Iñarra parrokoaren biografia aurkeztu du
KULTURA, 26



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko urriaren 23a • 3. urtea • 119. zenbakia • 0,90 euro

Gogotsu eta ilusio handiz jo zuten Danbakako lehen taldeek barikuan

Estilo ezberdinak eta eszenatokian ondo pasatzeko gogoak izan ziren jaun eta jabe Espaloian

ABIAN DIRA JADANIK
Egubakoitzean hasi ziren Danbakako zuzenekoak lehen emanaldi sortarekin

BOZKETAK ZABALIK
Ikuslearen sarirako botoak eman daitezke SMS bidez edo 'Danbaka.com' webgunean sartuta

HURRENGO TALDEAK
Matx bakarlariak eta Malenkonia, Belceblues eta Aby-Kem taldeek joko dute azaroaren 3an

Egubakoitzean jo zuten Elgetako Espaloia kafe antzokian Danbaka musika lehiaketak lehen lau partaideek.

Ikuskizun eta giro polita egon zen eta jendeak ere behar bezala erantzun zuen. Ondo defenditu ziren Azkaiter Pelox, Drakes, Klakson eta Ozen taldekoak egubakoitzean. **20-23**



JOSETXO ARANTZABAL

Klakson taldekoek pop-rock proposamen bitxi eta dibertigarria egin zuten.

Arrasateko kultura etxe berria ikusgai

Herritarrendako bisitak antolatu dituzte. Gaur has daiteke ordua hartzen **8**

Justizia administrazioa greban

Bihar abiatuko dute greba langileek; lan baldintzak dira arrazoia **8**

Ekimen berria euskal presoan alde

Arrasaten abiarazi zuten zapatuan eta eskualdez eskualde gartuko da abenduaren 16ra artean. Espetxe politika salatzea eta presoan auziari "herri gisa" erantzuteko dei egin dute. Arrasaten gose greba egiten dihardute 15 lagun ekimenarekin bat eginda. **5**

SUPER AMARA

DENA GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

GEUREAN

- Torturaren Biktimen II. Topaketa egin dute hainbat biiktimak eta adituk asteburuan Arantzazun | 4
- Antzuolan Sagastin parkearen aldeko plataformak herritarren partehartzea txalotu du | 7

Gaur zabalduko dute haurreskola publikoa Bergarako Martinez de Irala ikastetxean | 8

MIKOLOGIA EKITALDIAK



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko plazan egin zituzten Arizmendi Ikastolakoek antolatutako ekintzak. Giro bikaina egon zen goiz guztian zehar.

PERRETXIKOAK | ARRASATE ETA ESKORIATZAN HAINBAT MIKOLOGIA EKINTZA EGIN DITUZTE ASTEBURUAN ZEHAR

Asteburua eta gero, gehiago dakite perretxikoez Leintz ibarreko gazteek

Arrasateko Arizmendi Ikastolakoek eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeak primeran pasatu zuten mendira joan eta perretxikoak batzen. Gero erakusketa jarri zuten herrian

Goreti Elortza

Arizmendi Ikastolakoek XVI. Perretxiko Lehiaketa antolatu zuten igandean. Herriko plazan, astean zehar ikasleek batutako perretxikoen erakusketa jarri zuten, guztiak sailkatuta. Hauek izan ziren talde irabazleak: San Viator Txikiko LMH 6.mailako taldea, San Viatorreko DBHko 2.mailakoak eta San Viator Txikiko LMH 5.mailakoak, hurrenez hurren. Tabernen arteko Lehen Pintxo Lehiaketa ere antolatu dute aurten. Guztira hamar taberne hartu dute parte eta bana pintxo aurkeztu zuten. Epaimahaikoen arabera, "berdintasun handia" egon zen. Azkenean, Egazka tabernak eraman zuen saria.

Gainera, marrazki lehiaketa ere egin zuten eta Naiara Zeziaga eta Leire Pascual izan ziren sari-tuak.

Bestalde, batxilergoko 2.mailakoek ikas bidaiarako dirua lortzeko txosna jarri zuten plazan.

Giro bikaina jarri zuen mikologia festak Arrasaten. Gainera, bi artisau ere egon ziren plazan. Matxinbentako Iñaki Agirrezabalak otarrak egiten jardun zuen eta Joxe Intxausti legazpiarrak egurra lantzen.

LUIS EZEIZAKOAK ERE PERRETXIKOZALE

Luis Ezeiza gurasoen elkartek mikologia jardunaldiak antolatu ditu aurten ere. Aurtengoa zazpigarren aldia izan da, eta urte-

Eguna datutan

- **ESPEZIE KOPURUA**
140 espezie inguru sailkatu zituzten Eskoriatzan Laudiotik etorritako adituek.
- **PERRETXIKO KOPURUA**
Milaka perretxiko jarri zituzten Arizmendiko ikasleek plazako erakusketan.
- **JAKI GOZOAK**
Laudioko sukaldariek 800-1000 pintxo egin zituzten atzo, Eskoriatzan. Guztiak amaitu ziren arratsalderako.
- **LEHIAKETAKO PINTXOAK**
Arrasateko hamar taberne hartu zuten parte lehenengo pintxo lehiaketan.

ro bezala, zapatu goizean Hiruerreketara joan ziren 30 bat neska-mutiko eta guraso perretxikotara. "Oso gustura ibili gara guztiok, umee asko ikasten dute", zioen Pako Corbal gurasoen elkarteko kideak.

Arratsaldean, Perretxikozaileen Laudio Elkarteko Javi Mateo eta Gorka Urkijoren laguntzarekin batutako perretxikoak sailkatu zituzten ikastetxeke jangelan. "Lehenengo 100 espezieak erraz sailkatzen ditugu, gainontzeak liburuetan eta begiratu behar izaten ditugu", zioen Javi Mateo Elkarteko presidentek.

Domeka goizean, erakusketa egin eta perretxikoz egindako jakiak dastatu zituzten herriko plazan. Jende ugari batu zen.

MIKOLOGIA EKITALDIAK

• PERRETXIKOEN GAINEAN GEHIAGO IKASI DUTE



ARIZMENDI. Arizmendi Ikastolako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak eta DBHko 1. eta 2. mailakoak aste guztian jardun dute perretxikoak ezagutzen. Ruben Herizek idatzitako liburuxka erabili dute eta 40 espezie desberdin sailkatzeko gai dira ikasle asko dagoeneko. Hori erakutsi zuten domekan jarritako erakusketan behintzat. Goizeko 11:00etatik jardun zuten plazan sailkatzen.



LUIS EZEIZA. Guraso elkartekoek zapatuan batutako perretxikoen erakusketa jarri zuten domekan herriko plazan. Gainera, Laudioko elkarteko Pruden Aldaiturriagak perretxikoak osagai zituzten hainbat jaki desberdin prestatu zituen. Enpanadilla eta piper betek izan zuten arrakasta gehien. Bestalde, Mungiako Jose Azategi artisauak egurrezko perretxikoak jarri zituen ikusgai.

Temperatura epela eta euria da giro aproposena

Goreti Elortza

Jakin badakigu perretxikotarako sasoi onena udazkena dela. Hala esan digu Ruben Heriz perretxikoetan adituak ere. “Temperatura ona eta euria da perretxikotarako eguraldi aproposena. Eta gehienetan udazkenean egoten dira horrelako egunak”, azaldu zigun Rubenek. “Gainera, perretxiko bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta ezaugarri horien arabera izango da jaiotzen den lekua, garaia...”, gaineratu zuen adituak.

Badira udaberritik udazken amaiera arte perretxikoak batzen aritzen diren zaleak ere. Egunotan ikusi denez, naturak nabaritzen du hori eta neurriak jarriko omen dituzte.

KONTU HANDIA IZAN

Hala ere, perretxikoekin kontu askorekin ibili behar dela diote beti adituak. Izan ere, asko dira perretxikoak direla eta intoxikazioa izan duten herritarrak. “Antz handia duten perretxiko asko daude. Bata jangarria izan daiteke, eta bestea, berriz, hilgarria. Horregatik, oso kontuz ibili behar gara guztiok. Ondo ezagutzen ditugun perretxikoak bakarrik hartzea izan daiteke irtenbidea. Horrela, ezusteko asko ekidindo ditugu eta”, azaldu zigun Herizek.

Arizmendi Ikastolan bere liburuxka landu dute. “Berrogei espezie ikasi dituzte ikasleek. Gainera, perretxiko bakoitzaren deskribapenarekin batera, beste perretxiko batekin duen antza ere aipatzen da. Desberdintasuna minimoa da batzuetan eta argi gelditu zaie ezin daitezkeela tontokeriatan ibili”, bukatu zuen.

• PERRETXIKOZALE GAZTEENAK POZIK



JON, ARITZ, AINHOA, ARRATE,
PATRICIA ETA ALAZNE | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako DBHko ikasleak dira bost lagun hauek. Egubakoitzean joan ziren perretxikotara Udala aldera. “Oso ondo pasatu genuen eta asko ikasi dugu. Hala ere, laguntza pixka bat ere izan dugu”, esan zigun Aritzek. “Perretxiko batzuk pozoitsuak dira eta oso argi ibili behar da”, gehitu zuen Ainhoak.



AITZOL ETA JOKIN |
ARRASATE

Espezie mordo hartu zituzten bi mutiko hauek ere egubakoitzean. “Lagundu egin ziguten, oso zaila da guztiak ezagutzea”, esaten zuen Aitzolek. “Izenak zailak dira ikasteko”, amaitu zuten.



MARIA ETA PAULA |
ESKORATZA

Zapatu goizean gurasoekin eta ikaskideekin joan ziren perretxikotara. “Joaten garen hirugarren aldia da, oso ondo pasatu dugu”, aitortu zuen Mariak. Trametes Hirsutusak ere batu zituzten.



JOKIN, LOREA, MIKEL ETA ELI |
ESKORATZA

Lagun talde hau ere zapatu goizean joan zen Gatzaga aldera perretxikoak batzera. “Bost ordu egon ginen mendian”, zioen Loreak. Jokinek azaldu zigun moduan, “kontuz ibili behar da perretxikoekin, erraz nahas daitezke eta. Batzuk janez gero hil egin zaitezke gainera...”.



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin



JON BEREZIBAR

Ezker eskuin: Xabier Urmeneta, Jorge Barudy, Maria Gladis, Jon Landa eta Txema Auzmendi.

TORTURAREN BIKTIMEN II. TOPAKETA | INDARRAK BATU ETA ESPERIENTZIAK TRUKATU ZITUZTEN

Biktimei asistentzia eta salaketa, lehenbailehen hartzeko neurriak

Exil zentroaren laguntzarekin torturaren biktimen topaketa egin dute asteburuan Arantzazun

Euskal Herrian torturen biktima izan direnen elkarteak eratzeko lehen urratsak eman zituzten mintegian

Jon Berezibar

Exil, Bartzelonan egoitza duen tortura, indarkeria eta giza eskubideen urraketen biktima izandakoentzako laguntza zentroak lagunduta, Torturaren Biktimen topaketa egin dute asteburuan Arantzazun. 70 lagun elkartu dira han: tortura jasandakoak, haien senideak eta gaiaren profesionalak. Txema Auzmendi, Agurtzane Juanena, Ixone Legorburu eta Xabier Urmenetaren ekimenez antolatuta dituzte topaketako hitzaldi eta mintegiak.

Atzo egin zuten itxiera-ekitaldia eta orduan jaso zituzten ondorioak. Konklusioetan Jorge Barudyk, zentroaren zuzendariak, esan zuen ezinbestekoa dela gizarteak tortura "era masiboan eta sozialki" dagoela jakitea "hori frogatzen duten nahikoa dokumentu badago eta" eta biktimek

testigantza ematen jarraitu behar dutela. Laguntza profesionalaren garrantziaz ere mintzatu zen zuzendaria eta defendatu zuen biktimek eskubidea dutela erabakitzeke nork tratatuko dituen. Patricia Jirón psikologoak familiaren oinazea hartu zuen gaitzat, haiek euren mina kanporatzeko duten beharra aipatuz. Partaideetako askok lehen aldiz azaldu zituzten euren bizipenak topaketan. "Sentimentalki jorratzeko gai zaila da torturarena, baita familian ere" eta horren garrantzia aipatu zuen. Togotik eta Boli

"Sentimenduak jorratu behar dira baina salatzen jarraitu behar da"

Kostatik ere partaideak etorri ziren eta aipatu zuten herrialde demokratikoetan hau gertatzea sinestezina egiten zitzaizela eta euren jatorrizko herrialdeetako egoera ankerra azaldu zuten.

Victoria Mendoza psikoterapeutak sentimenduak jorratzeko beharraz hitz egin zuen, baina baita ere salatzen jarraitu beharra dagoela. Horren harira eta jardunaldiak itxeko, Jorge Barudyk

esan zuen salatzea beharrezkoa dela "ezingo dute eta gure memoria eta bizitakoa salatzeke gaitasuna deuseztatu".

ERTZAINZARI ERE

Mintegietan 70 eta 80 hamarkadetan latinoameriketako diktaduren biktimak egon ziren eta baita Euskal Herrian torturak salatu dituztenak eta haien senideak ere. Eusko Jaurlaritzako

Giza Eskubideen Batzordeko zuzendaria ere izan zen han. Jon Landak asistentzia, justizia eta aldarrikapenaren aldeko apustua egin zuen. Horri erantzunez, partaideetako batek Ertzaintzak torturatua izan zela esan zuen eta batzordean ez zitzaizola aintzakitat hartu. Batzordearen zuzendariari esan zion haiek ere "polizia torturatzaile" bat dutela eta esandakoak betetzeko.

VICTORIA MENDOZA | PSIKOTERAPEUTA ETA TORTUREN BIKTIMA IZANDAKOIA

"Torturak salatzen jarraitu beharra dago"

J. B.

Victoria Mendoza, psikoterapeuta mexikarrak tortura emozioen onarpenetik zelan jorratu landu zuen mintegietan.

Torturatuen beharrei nola erantzun behar zaie?

Lehenik eta behin aintzakitat hartu behar dira torturatuak. Euren eskaerei egin behar zaie kasu eta agintariei jakinarazi.

Era berean, biktimek eurek proposatu behar dituzte proiektuak, euren beharren arabera.

Topaketa hauen modukoak ere garrantzitsuak izango dira.

Beharrezkoa da biktimak elkar ezagutu eta egoteko aukera izatea. Torturatuak eta senideak, biak dira sistema baten jazarpenaren biktimak eta sentsibilizazioa beharrezkoa da. Alde batetik laguntza psikologikoa beharrezkoa da, baina era berean salatzen jarraitu beharra dago, bai hemen zein kanpoan.

Euskal Herriko egoera ere gertutik ezagutzeko aukera izan duzu.

Hemen bizi naiz eta oinaze handiarekin ikusten dut gertatzen dena, sumindu egiten nau. Presoengana ezin iritsi eza, sui-



Victoria Mendoza.

zidioak, depresioak. Gizarteak onartu egin behar du tortura dagoela behin betiko horrekin amaitzeko.

EUSKAL PRESOK | PRESOEN AUZIAN "HERRI GISA" ERANTZUTEN DUTEN PREMIA DAGOELAKO EKIMEN IBILTARIA AURKEZTU DUTE

Presoen eskubideak defendatzeko konpromisoak eskatuko dituzte

Arrasaten abiarazi zuten ekimena zapatuan. Herritarrek informatuz eta elkarrekin hausnartuz egin nahi dute lan presoaren alde

Monika Belastegi

Askatasunak eta Etxerategi abiarazi berri duten ekimen ibiltaria aurkeztu zuten zapatuan, Arrasaten, gaixo diren eta zigorra osorik beteta duten 135 presoaren senitarteko eta lagunekin batera. Goizean, euskal presoaren egoeraz jarduteko egindako batzarren ondorioz izan zen hori, eta Juan Mari Olanoren Askatasuneko bozeramaileak azaldu zuenez, "batzarrean egin dugun balantzea oso kezagarria da". Olanoren esanetan, "Espainiak eta Frantziak esku-hartze politikorako tresna gisa erabiltzen dute espetxe politika; herri oso bati xantxia politikoa egiteko, ez ezker abertzaleari soilik". Eta espetxe politika horren helburua "sufri-mindua eragitea" besterik ez dela gehitu zuen. Presoen eskubideen urraketa etengabea dela nabarmendu zuen Olanok. "Euren bizi baldintzak muturreraino eramaten dira" eta "mendekuan oinarrituta daude", esan zuen. Horren haritik, Zapatero gobernura iritsi zenetik "espetxe politika gogortu" egin dela azpimarratu zuen: "Espainiako estatuko kartzelatan okerrera egin du presoaren egoerak; isolamendua areagotzen ari da eta salbuespen neurriak ugaritzen. Kartzelarien



Etxaburu, Alkale, Otxandiano, Olan, Agirre eta Sagardui atzean 135 presoaren senitartekoak dituztela.

aldetik ere gero eta presio zuzenagoa egiten zaie". "Frantziaren gauzak paralelo" joan direla ere ekarri zuen gogora eta presoak "gero eta sakabanatuago" daudela.

SALBUESPEN NEURRIAK

Salbuespen neurrien harira, Espainiako Justizia ministro Lopez Aguilarek publikoki egindako adierazpenak horren adibide direla azaldu zuen; hain justu, "inpartazio berriak asmatuko dituztela esan zuenean, zigorra beteta duten presoak kartzelatik ez irteteko". Horren adibide garbiena "Iñaki de Juana da, baina

ez da bakarra. 135 preso daude zigorra erabat beteta izan arren, oraindik bahituta jarraitzen dutenak". Hala, "horretarako ere amarauna asmatu" dutela esan zuen Auzitegi Gorenaren 197/2006 ebazpenari -Parot doktrinari- erreferentzia eginez.

Ekimena herritarren indar eta inplikazioarekin eroan nahi dute aurrera

HERRI GISA ERANTZUTEN DUTEN PREMIA DAGOELAKO EKIMEN IBILTARIA AURKEZTU DUTE

Presoen auziari "justiziazko eta berehalako" irtenbidea aurkitzeko "herri gisa" erantzuteko beharra dagoela nabarmendu zuen Olanok, eta horregatik abiarazi dute ekimena. Hiru ardatz ditu: larri gaixotuta dauden presoak "berehala" kartzelatik ateratzea; zigorra beteta duten preso guztiak "epe oso motzean" etxeratzea eta sakabanatuta dauden euskal presoak "Euskal Herrira ekartzea dagozkien eskubideekin".

Ekimena herritarren "indar eta inplikazioarekin" eroan nahi dute aurrera: "informazio ema-

nez, elkarrekin hausnartuz, konpromisoak eskatuz eta elkarrekin erabakita. Horixe egitera goaz", azaldu zuen Askatasuneko kideak. Izan ere, "herritarren gehiengo gatazkaren konponbiderako prozesu demokratiko bat eskatzen dagoen honetan, ez diegu euskal presoekin jokaldi politikorik egiten lagako", eta gehitu zuen uste dutela gatazkaren konponbidearen alde zinez apustua egiten duen herritar oro "jakitun eta kontziente" dela "gatazkaren konponbidea elikatzeke ezinbestekoa dela brutalitate eta injustizia horiei irtenbidea ematea".

Debagoieneko 15 lagunek astebeteko gose greba hasi zuten zapatuan

Arrasaten abiarazitako ekimenaren barruan hainbat ekitaldi egingo dituzte ibarrean: gaur, astelehena, sindikatu eta elizarekin interpelazioa egingo dute eta arratsaldean elkarretaratzeak egingo dituzte 17:45etik 19:00etara biribilguneetan. Bihar, martitzena, zinegotzi eta alderdi politikoak interpelatuko dituzte. Eguaztenean, presoaren egoeraren gaineko hitzaldia egongo da Oñatiko kultura etxean 19:00etan. Eguenean euskalgintzako eragileak interpelatuko dituzte. Barikurako, berriz, hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzea

deitu dute eta zapaturako, eskualdeko manifestazioa. Arrasateko Uarkape pilotalekutik abiatuko da 18:00etan. Horrekin guztiarekin batera, astebeteko gose greba ere egingo dute ibarreko hamabost lagunek. Zapatuan ekin zioten Uarkape pilotalekuan eta datorren zapatara bitartean burutuko dute Haizpea Otxandiano Arrasateko amnistiaren aldeko kideak azaldu-tako moduan.

Ekimena ibiltaria denez, Debagoienetik Lea-Artibaira joango da zapatuan eta eskualde eskualde ibiliko da abenduaren 16ra arte.





JOSETXO ARANTZABAL

Arraten, bazkaltzera sartu aurretik harrapatu genituen saria jaso zuten Debagoieneko odol emaileak.

OMENALDIA | GIPUZKOAKO ODOL EMAILEAK ELKARTU ZIREN ATZO ARRATEN EUREN SARIA JASO ETA ELKARREKIN BAZKALTZEKO

Gipuzkoako 175 odol emailek jaso zuten atzo merezitako saria

Bergarako, Oñatiko, Antzuolako eta Elgetako 79 odol emailek jaso dute Odol Emaileen elkarteko omenaldia

Goreti Elortza

Urtero bezala, Arraten elkartu ziren domekan Gipuzkoako odol emaileak. Hantxe batu ziren Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolako odol emaileak, Debabarre-

nekoekin batera. 12:00etarako elkartu ziren eta Arraten meza entzun ondoren, Cantabria jate-txean bapo bazkaldu zuten Gipuzkoako 175 lagunek. Bazkaldu ostean eman zituzten sariak. Debagoieneko ordezkari den Adolfo

Sotok herri bakoitzeko arduranak deitu zituen eta bakoitzari haren herriko odol emaileei eman beharreko oroigarriak eman zizkien. Sariak, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen izenean banatzen dituzte.

EMAILE HANDIEN FALTA

Juan Lezeta, Maria Isabel Arregi eta Victoria Martinez Antzuolako emaile handiek ez zuten hitzordura joaterik izan.

Saria jaso duten debagoiendarrak

BERGARA

• 25 emate

Rosario Narbaiza
Milagros Agirrezabal
Fernando Erdabide
Arantxa Kaperotxipi
Edurne Beitia
Juan Ignacio Lopez
Roberto Elorza
Patricio Bideluze
Esteban Larrañaga
Iñaki Ayastui
Iñaki Zangitu
M^a Jesus San Sebastian
Santiago Olejua
Gurutx Osa
Igone Lopez
Pedro Mari Mujika
Jose maria Lucena
Nieves Larrañaga
Jose Ignacio Albusua
Antolin Lobato
Iker Etxeberria
Mertxe Garai
Xanti Astigarraga
Juan Luis Aranes
Iñaki Larrañaga
Josu Agirrezabal
Manuel Moral
Jesus Enrique Fernandez
Asier Labaien
Virtudes Fernandez
Emili Becerra
Jose Luis Gallastegi
Jose Antonio Luque
Mikel Odriozola
Juan Jesus Etxebarriarteun
Ana Aranburu
Lourdes Larrañaga
M^a Concepcion Laskurain

• 40 emate (emakumeak)

Maria Antonia Ugarte

• 50 emate (gizonak)

Jose Miguel Lazkano
Jose Manuel Villar
Javier Ugarte
Jenaro Lekuona

OÑATI

• 25 emate

Juan Luis Arrazola
Mariasun Aranzeta
Miguel Angel Arregi
M^a Luisa Aspiazu
Mikel Barrena
Gorka Bikuña
Natalia Colina
M^a Jesus Egorbide
Sabina Elorza
M^a Feli Gamendez
Jose Ramon Garai
Jose Luis Garcia
M^a Carmen Idigoras

• 40 emate

Miren Palacios
Juana Mari Kerejeta

• 50 emate

Fernando Kortabarria
Javier Etxeberria
Miguel Angel Mujika
Jose Javier Palacios
Mikel Ugarte
Miguel Angel Zarketa
Raquel Zubia

ANTZUOLA

• 25 emate

Francisco Javier Fernandez
Iñigo Montori

• 50 emate

Alfredo Garcia
Lorenzo Iturbe
Itziar Mancisidor
Nicolas Zabalo

• Emaile handiak

Juan Lezeta (75 emate)
Maria Isabel Arregi (60 emate)
Victoria Martinez (60 emate)

ELGETA

• 25 emate

Arantxa Arrastia

• 40 emate

Nati Arrieta
Arantxa Arrieta



NATI ARRIETA |
ELGETA

40 emate egin ditu. "Bi bider ematen dut urteko eta oso gustura egiten dut", esan zigun, "hau izan da nire azken aldia, 66 urtera arte eman daiteke eta...". Gazteak animatu zituen.



NIEVES LARRAÑAGA |
ANGIOZAR

25 emate egin ditu. "Urtean bi aldiz ematen dut odola, eta espero dut egunen baten 40 emate-tara ere heltzea", esan zigun Nievesek. "Gustura ematen dut, gainera beharrezkoa da oso".



KARMELO LOIOLA |
ELGOIBAR

50 emate egin ditu. "Urtearen arabera, bi edo hiru emate egin ditut. Hala ere, ebakuntzaren bat edo egon denean eta deitu didatenean, beti egon izan naiz prest".

Herritarren jarrera txalotu du parkearen aldeko taldeak

Herritarrek eta Udalak elkarlanean aritzearen aldeko apustua egin behar dela uste dute Antzuolako plataformako kideek

M.B.

"Sagasti zelaia herri barruan geratzen den berdegune bakarra bere osotasunean parkerako bideratzea nahi duen herritar talde baten gogotik sortutako herri ekimena" dela azpimarratuz, azkeneko hilabeteetan egindako ekintzak ekarri zituen gogora eguenean Antzuolan Sagastin parkearen aldeko plataformak.

Udalak Gizarte Etxe berria Sagastin eraikitzearen proiektuaren harira sortu zuten plataforma. Eguenean azaldu zutenenez, "garbi dugu herriak kultura eta gizarte ekipamendu egokiak behar dituela, baina baita erdigunean guztiok gozatzeko moduko parke txukun bat ere. Izan ere, Sagastiko eremua parkerako lagata ere posible da herrirako ekipamendu egokiak bermatzea".

Azkeneko hiru hilabete eta erdian egindako ekintzei dago kienez, "guztiak izenpetuta" egin dituztela azpimarratu zuten eta besteak beste, ekain eta uztail bitartean Gizarte Etxe berriaren proiektua geratzeko egindako sinadura batzea gogoratu zuten: "756 sinadura batu genituen, hau da, erroldaren %36,26a azken hauteskundeak kontuan hartuta. Hala, Udalak herritar zati handi baten iritzia eta nahia-ri bizkarra eman dio".



Carlos Conde eta Xabier Legorburu haibat herritarrekin batera.

Azaldu zutenenez, "Udalak bere burua legitimazio guztiarekin ikusten du Sagastin Gizarte Etxea egiteko eta legitimazio hori herriaren errealitate sozialaren ezagutzan eta hauteskundearen emaitzetan oinarritzen du". Baina legitimazio hori "herren dabil", plataformakoen iritziz eta uste dute "hauteskundeetako emaitzek ez dutela babesten udal talde batek egin dezakeena". Udaletik jasotako erantzuna "orain gu gaude hemen eta guk

erabakiko dugu zer egin" izan dela gehitu zuten. Hala, "badi-rudi erabakita dagoela zer egingo duten eta herrigunean adin guztietako pertsonak erabili ahal izateko berdegune lau bakarra betirako galduko dugu".

Bukatzeko, dena den, herritarrek prozesu guztian erakutsi duen jarrera "txalotu" zuten eta herritarrek eta Udalak elkarlanean aritzearen aldeko apustua egin behar dutelako ustea ere azaldu zuten.

Umeez askotariko jolas eta kirola egin zuten Kalexka programarekin

Aurrerantzean zapatu eta domeketan egingo dute Oñatin Kalexka programa 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako

A.G.

Kalexka kale-heziketa programaren aurkezpen jaia zuten zapatuan Oñatin. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako zuzenduta dago eta Udaleko Ongizate Zerbitzuaren ekimena izen eta askotariko ekitaldiak batzen zituen egitaraua antolatu zuten nerabeon interesa pizteko eta erakartzeko.

Zapatu arratsaldean egin zuten programaren aurkezpen jaia, plazan eta herriko neska-mutiko ugari zen jakin minak eroanda. Ekitaldien artean ikusmin handienetakoa eragin zuena udaletzeko balkoitik zintzilikatutako tirolina izan zen. Baina zazpi metroko alturako rokodromoak, skate pistak eta

herri kiroletarako egokitutako guneak ere gozatu zuten neska-mutikoon zapatu arratsaldea. Gainera, plazako fronteniserako gunean hainbat tailer egiteko aukera ere izan zuten gazteek: malabareak, perkusioak eta pul-tsera eta koilareak egiteko. Hori guztia monitorean laguntzarekin egin zuten gazteek.

AURRERANTZEAN ZAPATU ETA DOMEKETAN

Datorren asteburutik aurrera, zapatu eta domeketan egingo dute Kalexka programa. Monitorea ere hantxe izango dira eta gazteen baliabideak aztertzeaz gain, eurekin berba egingo dute batzuetan gurasoak iritsi ezin diren lekuetara iristeko asmoarekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Joko eta kirolez gain eskulanak egiteko tailerrak ere jarri zituzten.

• ZERO POBREZIAK DEITUTAKO ELKARRETARATZEA ARRASATEN

POBREZIARI AURPEGIA EMAN ZIOTEN ARRASATEKO PLAZAN

Pobreziari aurpegia eman. Ekintza gehiago, hitz gutxiago. Mezu hori helarazi zuten zapatuan Arrasateko plazan batu ziren lagunek. Zero Pobrezia plataformak pobreziaren gaia jendearen kontzientzietara eraman nahi izan zuen ekintza horrekin. Baita giza eskubideak eta guztiendako justizia aldarrikatu ere.

Duela sei urte Nazio Batuen Batzar Nagusiak Milurtekoaren Adierazpenaren Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuen, besteak beste, pobrezia larriena eta gosetea desagerrarazteko. GKEek salatu dute, lortutakoa gutxi dela.




JON BEREZIBAR

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- IMMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3,
2-3. atea
EGUNAK
Azaroak 8,15,22 eta 29.
ORDUA
10:30 etatik 12:00 etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN
943 77 08 05



Albiste izango da

ARRASATE | EGUENETIK AURRERA

Kultura etxe berria barrutik ikusteko aukera egongo da asteen

Obrak bukatu dituzte eta dena dago txukun-txukun eta berri-berri frantziskotarren komentu zaharberrian, kultura etxea izango dena hartzeko zain. Hain justu ere, egoera hori aprobetxatu gura dute kultura etxearen eraikin berria bere osotasunean herritarrei erakusteko. Lehenengo, udal agintari eta aldundiko ordezkariak bisitatuko dute eraikina. Eguaztenean izango da hori. Gero, eguenetik aurrera herritarrek ikusteko aukera izango dute. Bisita indibidualak edo taldeka egin ahal izango dira. Horretarako txanda hartu beharko da gaurtik aurrera, BAZen.

BERGARA | ZORTZI UMEREKIN ZABALDUKO DUTE

Gaur zabalduko dute haurreskola publikoa Martinez de Iralan

Gaur, astelehena, zabalduko ditu ateak haurreskola publikoak. Zer eta bi urte bitarteko umeak hartuko ditu, 55 guztira eta umeek hiru irakasle izango dituzte: Elena Guijarro arrasatearra, Sonia Laskurain soraluzearra eta Enertiz Dorronsoro zumaiarra.

07:30etik 18:30era egongo da zabalik haurreskola eta zortzi orduz gehienez egon ahal izango da ume bakoitza han. Egokitzapena ere eskaintzen du eta edozein guraso joan daiteke egoitza ikustera. Dena delakoa egiteko, hala ere, sarrera eta irteera orduak errespetatu beharko dituzte. Matrikulazio epea zabalik dago oraindik eta izena eman edo informazioa eskatu gura duenak, hona dei dezake: 943 77 91 60.

ARAMAIO | SINADURAK ERE BATZEN DIHARDUTE

AHTren kontrako agerraldia deitu dute datorren egubakoitzerako

Abiadura handiko Trenaren aurkako taldekoek jakitera eman dutenez, urriaren 27rako kale agerraldia deitu dute: 19:00etan egingo dute, plazan. Bilkura eta gero, DVD emanaldia egingo dute. DVDaren bitartez erakutsiko dute zela Italian lortu duten Abiadura Handiko Trenaren obra bat geraraztea, herritarren mobilizazioen bitartez. DVDA Sastiñan emango dute.

Horrekin batera, trenaren kontrako sinadurak batzen dihardutela ere ekarri dute gogora. Hil honen amaierara arte jarraituko dute sinadurok batzen, asteen egindako batzarrean hala erabaki dutelako. Hain justu, Erretiratuen Egunaren osterara arte –urriaren 29a– jarraituko dute sinadurok batzen. Asmoa da sinadurok azaro hasieran udaletxera eroatea.

DEBAGOIENA | BALDINTZA HOBEAK ESKATZEN DITUZTE

Justizia administrazioko langileek greba mugagabea hasiko dute bihar

Eusko Jaurlaritzaren «eraginkortasun faltaz nazkatuta», greba mugagabea abiatuko dute bihar, martitzena, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Justizia Administrazioako langileek. Beren lan baldintzak eta soldatak Jaurlaritzako maila bereko funtzionarioekin parekatzeko eskatzen dute. Diotenez, batez beste beraien soldata Jaurlaritzako maila bereko funtzionarioena baino %12 txikiagoa da.

Martitzenetan, eguaztinetan eta eguenetan egingo dituzte lanuzteok, 8:30etik 14:00etara.

ANTZUOLA | BATZARRA DEITU DUTE HILAREN 26AN

Nagusiak bisitatzera joateko boluntarioak behar dituzte

Antzuolako erretiratuen elkarte boluntario berri bila dabil Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzara astelehenetan egingo duten bisitaldiarako. Antzuolako hainbat adineko dago Bergarako egoitzan eta horiei bisita egitera joaten dira asteen behin.

Bisitotara joateko interesa zein Antzuolako erretiratuen elkarrekin egiten dituen gainerako ekimenetan parte hartzeko interesa duten guztiak hilaren 26an egingo duten batzarrera joan daitezke. Arratsaldeko 16:30ean egingo dute batzarra, elkarrekin Zurrategi plazan duen egoitzan.

Hitzorduak



ARRASATEKO KULTURA ETXE BERRIRA BISITAK ANTOLATU DITUZTE |

Gaur, astelehena, has daiteke jendea bisita gidaturako txanda hartzen

Gertu dago Arrasateko kultura etxe berria, Seber Altuben, eta orain, herritarrei barrutik erakutsi gura die udalak. Horretarako, bisita gidatuak emango dizkio Arantza Otadui historialariak hala eskatzen duenari. Hiru ordu laurdenekoak izango dira: hasieran, ikus-entzunezko proiektio bat emango dute,

eraikina historian zelan erabili izan den kontatzen, eta gero, leku horiek bisitatuko dituzte, zelan aldatu diren ikusteko.

Norberarendako bisitak Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskatu behar dira, eta taldeen kasuan, udala jarriko da eurekin harremanetan.

ARETXABALETA |

• Irudi digitalak tratatzeko ikastaroa, bi zatitan

Irudi digitalak lantzen ikasteko tailerraren lehen atala emango dute bihar, martitzena, eta etzi, eguaztena, KZgunean, 16:00etatik 18:00etara, eta bigarrena hilaren 26an eta 27an, ordutegi berean.

ARRASATE |

• Joskintza ikastaroa antolatu du Ekin elkarteak

Ekin Emakumeak elkarteak joskintza ikastaroa antolatu du azaroaren 13tik 16ra bitarteko, mutil zein neskei zuzenduta. Botoiak josi, barrenak hartu, kremaierak aldatu eta bestelako gauzak egiten irakatsiko dute. Izenematea, 943 79 83 70 telefonoan.

BERGARA |

• Erretiratuen irteera Lizarrara eta Iratxera

Lizarrara eta Iratxera bidaia egingo dute San Joxepeko erretiratuek azaroaren 8an. Gainera, Puentele Reinako Señorío de Sarriá upeltegia bisitatu dute.

• 1930ean jaiotakoek ospakizuna egingo dute

Ospakizuna egingo dute 1930ean jaiotakoek azaroaren 11n, zapatua. Taldeko argazkia eta Zumelagan bazkaria izango dituzte. Izena emateko, dei-

tu honako telefonoetara: 943 76 15 88 edo 943 76 22 22.

• Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena

Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

• Txapa irratian saioa egin nahi dutenendako aukera

Denboraldi berriko programazioa ipini du Txapa irratian www.txapairratia.org webgunean. Saioren bat egin nahi dutenek gaztetxera joan behar dute zapatuetan 12:30ean.

• Pertsonen arteko harremanak, hitzaldi baten

Pertsonen arteko harremanak hobetzeko urratsak delako hitzaldia egingo du Felix Gariñano apaizak etzi, eguaztena, Miguel Altunan, 20:00etan.

• Sexu-berdintasuna lantzeko ikastaroa dago

Seme-alabekin sexu-berdintasuna landuko dute doako ikastaro baten. Izenematea zabalik dago ikastetxeetan edo kultura etxean.

DEBAGOIENA |

• Gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera dago

Gripearen aurkako txertoa har dezakete 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoak dituzten guztiak. Horretarako txanda eskatu behar da norbere osasun zentroan edo medikuarekin.

• Lan bertikal ikastaroa antolatu du Arizmendik

Eraikuntzarako goialdeko lan bertikalen gaineko ikastaroa antolatu du Arizmendik. Azaroaren 4tik abenduaren 3ra bitarteko asteburuetan egingo dute. Izena emateko, deitu 943 77 20 25 telefonora.

• Lankidetzeta eta garapen ikastaroa Arantzazun

Lankidetzeta eta garapenaren gaineko hasierako ikastaroa antolatu dute Gipuzkoako GKEek azaroaren 4rako eta 5erako Gandiaga Topagunean. Argibideak, telefono hone-tan: 943 28 99 56.

ELGETA |

• Bizikletak konpontzeko tailerra emango dute

Bizikletak konpontzeko oinarriko ikastaroa emango dute hilaren 25ean eta 26an, eta izenematea zabalik dago bihar, martitzena, arte, udaletxean. Doan da.

OÑATI |

• Guraso Eskolan izena emateko aukera dago

Guraso Eskola antolatu du Udal Prebentzio sailak. 2-9 eta 10-16 urte bitarteko gurasoendako talde bana dago. Parte hartzeko, 10 euro ordaindu behar da. 14:45etik 16:15era izango dira saioak. Izenematea, 943 03 77 00 telefonoan.



**ETA
PROBATZEAN...
GUSTATZEN
BAZAIZU?**



AURREIRITZIRIK GABE, BENETAKO GIPUZKOA

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Txakurrek ere badute kaka egiteko leku aproposa

Antzuolan Udalak txakurrek kaka egiteko ipini zituen eremuen erabilpen ezaz kezatzeko jo du tarte honetara irakurle batek. Pilotalekuaren hormaren kontra, hesiz inguratuta, txakurrek kaka egiteko gune bat ipini zuen Udalak, ambulatioaren parean. Irakurleak dio ia jabe batek ere ez duela txakurra bertara eramaten eta sarri askotan ikusi dituela txakurrak inguruko parkean kaka egiten. "Ingurua kakaz beteta egoten" dela dio, eta "askotan handik paseatzen ibiltzea ez da atsegina izaten kaka-pilo mordoia egoten delako". Gunea behar den bezala erabiltzea eskatzen du irakurleak, bestela, beharrezko neurriak hartzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Sarean harrapatuta

Tentuz ibiltzen gara perretxikoak biltzera joandakoan?

Adituen esanetan, aurten inoiz baino onddo gehiago dago basoetan. Ondorioz, badirudi inoiz baino jende gehiago joaten dela onddo preziatu horiek biltzera. Baina, onddo bila joanda ezusteak ere gertatu dira azken

aldian: mendian galdu, erori edo onddo txarrak janda gaixotu. Azken asteotako gertakariak ikusita *Goiena.net*-en egin dute galdera: *Tentuz ibiltzen gara perretxikoak biltzera joandakoan?* Hemen erantzunak.

AITAREKIN JOATEN NAIZ PERRETNIKOTARA

Niri onddoak izugarri gustatzen zaizkit. Onddo beltza erraza da bereizteko baina hala ere badira beste onddo klase batzuk txarrak direnak. Ni aitarekin joaten naiz mendira perretnikotara, badaezpada ere. Bere oniritzia jaso gabe ez dut otzarara perretnikotara sartzen. Gainera, nik uste dut geroz eta jende gehiagok daukala perretnikotarako zaletasuna.

Jone / www.goiena.net

MODA BIHURTU DA ONDDO BILA JOATEA

Ni oso gutxitan joan naiz perretnikotara. Egia esan, asko jan ditut baina bila ez naiz askotan joan. Gainera, joan naizenetan jende asko dabil eta gehienak jasota daude. Beno izango da ez dakizkidalako leku sekretuak... edo bestela jende asko dabilelako. Niri mendian lasai ibiltzea gustatzen zait eta nahiago dut ez egotea inor mendian. Perretniko zaletasuna ikaragarri hazi da azken aldian eta orain kaleta-

rrak ere jo eta ke hasi dira perretniko bila. Moda bezala bilakatu da. Garai honetan igande goizetako plana perretnikotara familia osoarekin!

Miren / www.goiena.net

INGURUA ERE ZAINDU BEHAR DA

Niri oso ondo iruditzen zait jendea perretnikotara joatea astebururo edota perretniko zaletasunari esker geroz eta jende gehiago mendira joatea. Animo! Oso osasungarria eta ona da eta mendira joatea! Hori bai, mendez, zain dezagun mendia eta perretnikotarako eramaten ditugun plastikozko poltsak ez utzi mendian! Errespetatu natura bestela datorren urtean perretnikoak non haziko dira bada? Egin dezagun dena denongatik eta zaindu dezagun natura!

Ekologista / www.goiena.net


BATZUK EZ DIRA ERRAZAK BEREIZTEN

Ni astebururo joaten naiz perretnikotara. Gainera urtero pare bat lehiaketatar ere aurkezten naiz. Askok gustatzen zait mikologia. Eskolan erakutsi digute nola bereiztu perretniko ezberdinak eta noski, badakigu zein den ona eta zein txarra. Hala ere, gero errealtatean ez da horren erraza. Izan ere, eguraldi eta egoeraren arabera perretniko asko hondatu egiten dira edo itxuraz aldatzen dira. Ondorioz, askotan zaila da perretniko bat bereiztea. Dena den itxuraz gain usaimenaz edota perretnikoaren ukimena kontuan hartzen bada errazagoa egingo zaigu jakitea ona edo txarra den.

Peru / www.goiena.net

www.goiena.net

Tentuz ibiltzen gara perretnikoak biltzera joandakoan?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera


EZJAKINEAN JOATEN DIRA ASKO MENDIRA

Askok ezjakinean joaten dira perretniko bila eta nola esaten duten asko daudela, bada, jende pila bat mendira! Eta mendira joaten diren askok ez dakite perretnikoen gainean gauza handirik; ahal duten guztia batzen dute eta gero izaten dira ondorioak. Dakien norbaitekin joatea hobe!

Ander / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Gipuzkoako haurren %25ak gainpisua du. Adituek diote ariketa fisiko urriagatik dela. Zer deritzozu



ALBERTO GARAI |
KIROL MEDIKUA

Gaszteenei ere ariketa fisikoa erretzetzen hasi beharko genuke medikuok. Hezkuntza fisikoko orduak ere gutxitu egin zituzten orain urte batzuk eta horietan ariketaz gain haurrak hezi eta elikatzen ere irakasten da. Egoneko bizitzak eta elikadura txarrak kalte handia dakarte.



IRATXE ARANBURU |
ARRASATEKO KIROL TEKNIKARIA

Larria da; gehiegizko pisudun haur bati helduaro gaixo bat ziurtatzen zaio. Eskolatik hezi behar zaie kirolaren kulturaren jabe izateko. Ikusten da eskoletako soinketa orduak ez direla nahikoa eta Osasunaren Munduko Erakundeak dio plaga dela eta ariketa azpimarratzen dute.



JOSEAN IÑARRA |
GORPUTZ HEZIKETA IRAKASLEA

Astean gorputz heziketari bi ordu besterik ez zaio ematen hezkuntza planetan, egunero ordu beteko ekintza fisikoa gomendatzen bada ere. Egungo heziketa fisikoko eskola ez dira lehengo "gimnasia" orduak. Oinarritzko gaitasun fisikoak, elikadura, gorputza ezagutzen... irakasten zaie.



MIREIA ALBERDI |
DIETISTA

Ohitura aldaketa egon da elikazterako orduan. Ogitartekoa galdu egin da opil industrialengatik ordezkaturik. Kaloria hutsak eta koipe larregi duen dieta dute haurrek eta okerrena da gurasoek ez dutela ikusten seme-alaba gizenak dauzkatala eta ez da ezer ere egiten ohiturak aldatzeko.

Egunkarietako harribitxiak

EUROPAKO ZAHARRENA
Gaindegiak berriki ezagutzera eman duenez, Euskal Herriko biztanleen zahartzea Europako Batasuneko handiena da. Azkeneko bi hamarkadetan jaiotze tasak behera egin du eta hazi egin da 60tik gorako biztanleek portzentajea. Hori horrela, gure geroa markatzen duen ugalkortasunaren gaineko azterketa ere egin dute.

'Gara'
2006-10-21



ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTEKO PLANA
Europako Batasuneko kideek kontsumitzen duten energiaren %20 aurrezteko plan bat aurkeztu du Europako Batzordeak. 2020. urtera arteko epean gauzatu nahi dute asmoa. Berotegi efektuak klima aldaketari eragindako arazoei aurre egiten hasteko asmoaz gain, energia iturrien hornikuntzan pairatzen duen mendekotasuna gutxitu nahi du Bruselak. Energia aurrezteko plan horrek 100.000

milioi euroko aurrezpena ekarriko du 2020 bitartean. Era berean, 780.000 milioi tona karbono dioxido airera botatzea ekidin dezake. Energia iturriak hobekien baliatzeko kontsumitzaileen konpromisoa beharrezkoa dela ere adierazi dute. Hala, energia kontsumitzen duten tresnerien erabileran neurriak jarriko dituzte esan dute.

'Berria'
2006-10-21



Zorroztailea



Kirtenekin bueltaka

"Emazkiozue goraintziak zuen presidenteari. Hori bai hori da gizon puska. Dozena bat emakume bortxatzea! Ez nuen halakorik espero harengandik. Guztiok harritu gaitu. Guztiok diogu inbidia".

Valdimir Putin

'Berria' | 2006-10-21

egin behar ez hala? Gure Jose Mari ere, hori bai demokrata! Hor dabil kazetari emeen titi bitartean boligrafoarekin saskibaloian eta Vladimir, orein arrik arrenari zorionak ematen, gizakiok ere oreinak izango bagina bezala.

Txarren txarrena da euren buruak eredutzat dauzkatela. Euren bizitza eredu dela zuzena. Eurek erakusten dutena dela zuzena (noizean behin holako hanka sartetxoren bat izan arren). Egunen batean konturatuko gara kirtena dena ez dela noizean behin kirtena, bizitzaren arlo guztietan baizik eta zuzendu beharrezkoa kirtenkeria hori dela, baina zuztar zuztarretetik; izan ere animaliatik bereizten gaituena hori baita.

Jabier Arantzeta

Udazkena eta perretxiko sasoi iritsi den honetan, orein harrak estalketa lanak nork egingo dituen orroka eta borrokan ari direnean, gizakion artean ere, hemen agertu zaizkigu animaliarik animalienak animaliake-riak esan eta egitera. Batetik Israelgo presidentek bi emakume bortxatu eta hiru sexu gehiegikeria egin ei ditu, eta bestetik Errusiako demokraten eredu paregabe hori zorionak ematen.

Eta bitartean gu lako arrarotxoren batek bere haserrea adieraziko du, feministek adierazpen publikoak egingo dituzte eta hor bukatuko da guztia. Azken finean hau ere zer izan da bada kirten baten beste kirtenkeria bat baino? Eta kirtendunok noizean behin kirtenkeriak

"Gure Jose Mari ere, hori bai demokrata! Hor dabil kazetari emeen titi artean boligrafoarekin saskibaloian"

"Egunen batean konturatuko gara kirtena dena ez dela noizean behin kirtena, bizitzaren arlo guztietan baizik"

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-X-21

Egunkarietan irakurri dugu

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"Nik mundu guztiarekin enpatizatzen dut. Hain justu, enpatia da Euskal Herriko politikan galdu den baloreetako bat. (...) Tortura kasuetan biktimarekin enpatizatzea saihestezina da. Baian aldi berean jakin egin behar da jarrera teknikoa mantentzen eta inpartzialtasuna neutralitatetik bereizten ere bai".

Francisco Etxeberria Gabilondo
2006-10-21

'El Mundo'

ELKARRIZKETA

"Mundu guztiko buruzagi politikoei beste herrialde batzuetaz berba egiten dutenean, azaleko moduan egiteari laga beharko lio-kete. Herritarrei munduaren konplexutasuna ulertarazten lagundu behar diete. Hala, herritarrek aukera izango dute euren buruei galdetzeko besteek ze arrazoi duten jokatzaren duten moduan jokatzeko".

John M. Fahey
2006-10-21

'Gara'

ELKARRIZKETA

"Gabezia izugarria dugu euskal erakunde egoki bat ez daukagulako. Udalbiltza zatitua dagoenetik gabezia bistakoa da, eta behar beharrezkoa ikusten dugu Euskal Herriaren garapenerako. Gainera, garai ego-kia dator Euskal Herri osoan hauteskundu- den atarian gaudelako, eta egungo egoera politikoei ere lagun dezake".

Maite Aristegi
2006-10-21

'Berria'

EUSKARAREN LEGEA

"Euskararen etorkizuna bermatzeari buruzko eztabaida sozial hori zabaldu behar da Eusko Legebiltzarrean, eta gaurko proposamenarekin aitzakia zegoen hori zabaltzeko. Lan talde bat eratu beharko genuke ikus- teko indarrean dagoen Euskararen Lege horretan zer bete den, zer eman duen lege horrek eta behar balira aldaketak egin".

Aintzane Ezenarro
2006-10-21

KIROLA

- Eskoriatzako Mendi Bizikleta ibilaldian 240 laguna aritu ziren | 18
- Mugarri Alkesak 93-74 irabazi zion Errori Iturripeko kantxan | 15



Iurgi Lazkano
Musakolako
muskulazio gelako
arduradunarekin
izan gara | 19

PREFERENTE MAILA

ALOÑA MENDI

2-1

PASAIA

Aloña Mendi | Idigoras, Roberto (Carpintero, 90. min.), Garai (Camino, 70. min.), Arregi I. (Garmendia, 89. min.), Zubia, Barrena, Arregi II. (Moiua, 79. min.), Lopez, Martin, Astola eta Olalde.

Pasaia | Vidal, Larrea, Vidal, Apaolaza, Rodriguez (Santos, 67. min.), Araque (Cestero, 61. min.), Abrego, Maritxalar (De la Fuente, 72. min.), Calso (Salazar, 89. min.), Arrieta, Goya.

Golak: 1-0 | 1-0 Roberto Idigoras (25. min.), 1-1 Eneko Abrego (60. min.) 2-1 Unai Arregi (88. min.).

Epailea | Labaka jauna. Estebanez eta Arizmendi izan zituen laguntzaile lanetan.

Bestelakoak | Euria egin arren jende dezente joan zen Azkoagainera partidua ikustera.

Bikain

Taldeak hobera egin du
Aloña zerbait gehiago egiteko gai zela bagenekien; emaitzak, ordea, txarrak ziren. Atzo, aparteko ezer egin gabe, txukun jokatu zuten, ikusleak gustura utziz.

Kaskar

Baloiak galdu
Bigarren zatian Pasaia lerroak aurreratu zituen eta Aloña arazo gehiago izan zituen aurrera ateratzeko. Nahasmenarekin baloi batzuk galdu zituzten atzealdean

Esandakoak

“Gola talde guztiarekin ospatzea gura izan dut. Taldea bat eginda dago eta hori erakutsi nahi izan dugu”.

“Bi garaipen jarraian eskuratu ditugu eta horrek aurrera egiteko indarra emango digu. Taldea indartsu dago”.

UNAI ARREGI |
ALOÑAKO JOKALARIA



JOSETXO ARANTZABAL

Unai Arregik egin zuen Aloñaren bigarren gola. Aurretik, falta jaurtiketa batean langa jo zuen.

FUTBOLA | ORAIN ARTEKO PARTIDU ONENA JOKATU ZUEN ALOÑAK

Aloñak arnasa hartu du bi garaipen jarraian eskuratuz

Ondo merezitako garaipena eskuratu zuten oñatiarrek etxean. Atzokoarekin bi garaipen jarraian eskuratu dute Oruetaren mutilek

Arantzazu Ezkibel

Aloñak arnasa hartu du atzo etxean Pasaiari 2-1 irabazi ondoren. Horretarako, baina, gogor egin behar izan zuten lana oñatiarrek. Atzoko garaipenarekin, Aloñak bi partidua jarraian irabazi ditu eta sailkapeneko azken postuetatik ihes egin du.

JOKOA HOBETU DUTE

Orain arte etxean jokatuako partiduetan Aloñak ez du joko onik egin eta emaitzak ere txarrak

izan dira. Atzo, ordea, taldeak beste itxura bat eman zuen. Ez zuten aparteko jokorik egin baina polito jokatu zuten eta Azkoagainera hurbildutakoek ederto eskertu zuten hori.

HEGALEKO JOKOA

Lehenengo zatian zelai erdiaren kontrola hartu zuten etxekoek. Baloia ondo mugitu zuten hegaleatik, Pasaiaren arean arriskuko jokaldiak sortuz.

Unai Arregik izan zuen aukera lehenengo gola egiteko. Area

ertzetik jaurtitako falta batean baloiak langa jo zuen. Gola Iñigo Arregiren jokaldi baten ondoren etorri zen. Jokalari oñatiarra ezkerreko hegaletik igo zen eta bere erdiraketa Roberto Idi-

gorasek sareetan sartu zuen. Aloña aurretik jarri zen.

Atsedenenaren ostean Pasaiak lerroak aurreratu zituen eta partidua beste itxura bat hartu zuen. Jokoa nahastu eta gogortu egin zen.

BERDINKETA DUDAZKOA

Pasaiaren kontraeraso batean, marrazainak jokoz kanpo adierazi zuen baina epaileak ez zion kasurik egin eta Pasaiak berdinketa lortu zuen.

Oruetak Xabi Camino eta Unai Moiua atera zituen eta horiek bizitasuna eman zioten Aloñako erasoari. Biek hala biek izan zuten gola egiteko aukera. Azkenean, baina, Unai Arregi izan zen golegilea. Aloñako jokalarik eta teknikoek bat egindako ospatu zuten garaipenaren gola.

Aloñak langara bota zuen falta bat. Lehenengo gola izan zitekeen

Bigarren zatian, Camino eta Moiua bizitasuna eman zioten etxeko erasoari

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Josu Zubikarai egin zuen lehenengo zatian Mondraren gola.

Lasaitasuna ematen duen garaipena lortu zuen UDAk

UDA
1-0
ORDIZIA

Mireia Bikuña

Puntuak beharrezkoak zituen UDAk sailkapeneko azken postutik ihes egiteko. Ordiziaren aurka lortutako garaipenaren ondoren, bost puntu ditu sailkapenean Recioren taldeak.

GOL BAKARRA

Pasaia eta Hondarribiaren aurkako partiduetan bezala, gol aukera asko sortu zituen UDAk. Baina partidu haietan gertatu bezala, gola egitea kosta egiten zaie. Hala, atzoko lehia gol bakarra egin zuen UDAk. Igor Arriagak lortu zuena, alegia.

Ordiziak atzeko lerro sendoa duela erakutsi zuen atzoko norgehiagokan. Defentsan lan ona egin zuten-eta. Baina erasoko jokalaririk batzuk falta zituen.

Bada, Ordiziako taldeak apenas izan zuen gol aukerarik partidua berdintzeko.

Lehenengo gola egin arren, Mondrak ez zuen irabazi

MONDRA
1-1
MUTRIKU

Mondra | Ander, Loiti (Losada, 65. min.), Andoni, Mercader, Laspiur, RUBen, Zubikarai, Gotzon, Lopez, Muxi (Maikel, 51. min.) eta Ekain.

Mutriku | Iñigo, Oier, Tubal (Xabier, 89. min.), Iker, Aritz (Eneko, 75. min.), Ander (Kepa, 61. min.), Jon, Mikel (Mugertza (Mikel, 81. min.), Andoni eta Urritz (Lasarte, 64. min.).

Golak: 1-0, Zubikarai (31. min.), 1-1, Andoni (60. min.).

Epailea: Haro Jauna. Txartel asko erakutsi zituen arren, ez zuen arazorik izan partidua zuzentzeko.

Mireia Bikuña

Berdinketarekin amaitu zen zapatuan Mondrak eta Mutriku jokatuak partidua. Mondrak garaipena merezi izan zuen arren, ez zuen gol gehiago egin. Ez zuten zortzerik izan arrasatearrekin kamiseta berriekin.

GOLA, 31. MINUTUAN

Lehenengo zatian Igor Gordobil taldea izan zen nagusi Atxabalpeko zelaian. 8. minutuan lehen gol aukera izan zuen arrasatearrekin. Muxi atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina ez zuen golik egin. 18. minutuan Lopez izan zen errematea egin zuena; baloia kanpora joan zitzaion. Tartean, Mutriku ere

abagunea izan zuen gola egiteko. Bada, Aritzen errematea kanpora joan zen.

Lehen zatiko ordu erdia bete orduko egin zuen Mondrak bere gola. Josu Zubikarai lortu zuen 31. minutuan. Abantaila hartu eta atsedena bitartean, Mondrak joko ona egin zuen.

BERDINKETA, 60. MINUTUAN

Bigarren zatia hasi bezain laster, 60. minutuan, Andonik berdinketaren gola egin zuen.

Mondraren jokoa asko nahastu zen orduan. Aukerarik izan zuten garaipenaren gola egiteko. Bada, ez zuten asmatu.

Mutriku ongi kokatu zen zelaian eta kontraerasora jokatu berdinketa mantentzea lortu zuen.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	Puntuak	SAILKAPENA								
		J	I	G	B	GA	GK			
UDA-Ordizia	1-0	1.	Zarautz	16	7	5	1	1	12	4
Aurrera-Hondarribia	2-0	2.	Hernani	13	7	4	2	1	14	8
Zestoa-Hernani	2-1	3.	Berio	13	7	4	2	1	11	8
Aloña Mendi-Pasaia	2-1	4.	Anaitasuna	12	7	3	1	3	11	5
Zarautz-Martutene	1-0	5.	Trintxerpe	11	7	3	2	2	8	10
Trintxerpe-Urola	1-0	6.	Mondra	11	7	3	2	2	8	6
Mondra-Mutriku	1-1	7.	Zestoa	11	7	3	2	2	9	10
Idiazabal-Touring	0-3	8.	Touring	10	7	3	3	1	14	8
Berio-Anaitasuna	1-0	9.	Ordizia	10	7	3	3	1	8	8
		10.	Aurrera	9	6	2	1	3	10	9
		11.	Hondarribia	9	7	2	2	3	5	5
		12.	Aloña Mendi	9	7	3	4	0	6	9
		13.	Urola	8	7	2	3	2	4	5
		14.	Pasaia	8	6	2	2	2	6	8
		15.	Idiazabal	7	7	2	4	1	2	10
		16.	UDA	5	7	1	4	2	3	7
		17.	Mutriku	5	7	1	4	2	5	12
		18.	Martutene	4	7	1	4	1	8	12

HURRENGOAK

Ordizia-Aurrera
Hondarribia-Zestoa
Hernani-Aloña Mendi
Pasaia-Zarautz
Martutene-Trintxerpe
Urola-Mondra
Mutriku-Idiazabal
Touring-Berio
Anaitasuna-UDA

Lehenengo erregionala

Bergarak zailtasunak izan zituen garaipena lortzeko

BERGARA
1-0
BETI ONA

Arantzazu Ezkibel

Kostata irabazi zion Bergarak Oreretako Beti Onak taldeari zapatuan Agorrosinen. Oreretakoak bi jokalaririk gutxiagorekin geratu ziren bigarren zatian eta, hala ere, Bergara ez zen gai izan

markagailuko errenta handitzeke. Partiduko 10. minutuan Ore-gik buruz sartutako gol ikusgarria nahikoa izan zen hiru puntuak etxean geratzeko.

BALOI ASKO GALDU


Etxeko taldeak baloi luzeen bidez jokatu zuen. Baina pasea egite-rakoan huts egin zuten. Hala, zelaian baloiak samur galdu zituzten.

Kontuak kontu, Bergarak jokoan zituen hiru puntuak eskratu zituen. 11 punturekin, sailkapeneko hirugarren postua eskratu dute mahoneroek.



Erasoan bizitasuna falta du Bergarak.

Bigarren erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETAK IRABAZI ZUEN BAILARAKO DERBIA: 0-1

Bigarren erregional mailako derbia jokatu zuten atzo Bergarako BTLs eta Elgeta taldeek. Lehenengo zatian Iraitz Bolinagak lortutako gola-ri esker irabazi zuen Elgetak. Bigarren zatian Bergarako BTLs taldeak hobeto jokatu zuen. Hala, markagailua berdintzeko aukerak izan zituzten. Baina ez zuten golik egin.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Ligako lehen partidua galdu zuen Ford Mugarrik

Euskadiko txapelketako bosgarren jardunaldian galdu zuten Romoren aurka

FORD MUGARRI
24-28
ROMO

Ford Mugarri | Egaña, Valle, J. Eskibel (3), A. Eskibel, Eneko (1), Peio (1), Arkaitz (3), Aitor (1), Oier, Iker, Andoni (9), Nestor (3) eta Iker (3).

Romo | Gomez, Martinez, Garcizar (4), Solana (5), Graña (2), Martinez (2), Hernandez (6), Ciudad (5), Bernedo (2), Gaztelua (2), Santos, Rua eta Marin.

Golak bost minuturo: 3-2, 7-5, 10-7, 11-11, 13-13, 14-18. Atsedena. 16-20, 16-22, 18-24, 19-25, 22-26, 24-28.



JOSETXO ARANTZABAL

Andoni Bernalek bederlatzi gol sartu zituen arren Erro- Eugi taldearen aurka.

Mireia Bikuña

Orain arte denboraldian jokatutako lau partidutan emaitza onak lortu ondoren –hiru partidu irabazi eta bat berdindu ondoren–, bosgarren jardunaldian jaso zuen lehen porrota Arrasateko taldeak. Ford Mugarrik ez zuen partidu ona jokatu Romo taldearen aurka.

HASIERAKO 25 MINUTUAK

Lehen zatiko 25 minutuak izan ziren arrasatearrek jokatutako onenak. Tarte hartan nahiko joko ona egin zuten. Hiru goleko errenta izan zuten markagailuan, 10-7.

Baina, Romok berdinketa lortu zuenean, 10-10, partidua erabat aldatu zen. Bizkaitarrek hartu zuten mendean partidua. Hala,

abantailarekin iritsi ziten atsedenera, 14-17. Lehen zatiko azken bost minutuetan, Romok bost gol egin zituen. Ford Mugarrik bakarra lortu zuen.

IDEIA BARIK

Bigarren zatia lehen zatiko azken minutuen antzekoa izan zen. Arrasatearrak gogotsu irten ziren kantxara. Baina, erasoan

huts asko egin zituzten. Aipagarria da Romoko atezainak egingo lana. Baloia asko gelditu zituen eta. Halaber, Romok erasoan jaurtizaila onak dituela erakutsi zuen.

Bigarren zatian asko nahastu zen partidua. Epailerekin erabaki eztabaidagarriak hartu zituzten. Hala, etxeko bi jokalariri txartel gorria erakutsi zieten.

• MUTILAK, GAZTEAK

Etxekoen aurrean galdu zuen Bergarak

A.G

Etxekoen aurrean jokatzeko zuten estreinako partiduan ezin izan zuten garaipena lortu. Bergarak 26-29 galdu zuen Ereitzaren aurka atzo goizean.

AURKARI GOGORRA

Bergarak aurkari gogorra hartu zuen Labegarrietan. Ereintza ligako talde gogorrenetakoa da. Hala ere, Bergarak ondo egin zion aurre eta partidu txukuna jokatu zuen.

Bi partidu jokatu dituzte eta oraingoz bakarira irabazi dute. Datorren astean Donibaneren kantxara egingo dute bisita Lander Juaristiren mutilek.

• NESKAK, GAZTEAK

Aloñak azken minutuetan berdindu zuen

A.G

Azken minutuetan Ereintza bi jokalaririk gutxiagorekin geratu zen eta momentu hura aprobeztatu zuen Aloñak markagailua berdintzeko (16-16).

PARTIDU GOGORRA

Aloñak partidu ona jokatu zuen, batez ere defentsan. Atzealdean gogor aritu ziren ofatziarrak, zulo guztiak ondo itxiz.

Aloña markagailuan aurretik ibili zen arren, atsedenera ostean markagailuko errenta galdu eta atzetik jarri ziren. Azkenean berdintzea lortu zuten.

• NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Aloñak lan ona egin zuen etxean

VERKOL ALOÑA
22-22
BASAURI

Verkol Aloña | Zabaleta, Zuazolagorriaga, Goñi, Larrañaga (4), Altuna (1), Unamuno (4), Madariaga (1), Zubeldia (4), Usabiaga, Sanchez (2), Elorza, Arteaga (6), Olabarria.

Basauri | Carralero, Garcia (4), Sanchez (3), Lopez (4), Baliña (1), Billate (2), Lopez (1), Calvo (5), Bruña, Moncero (1), Ojenbarren, Nabarro eta Gonzalez (1).

Golak: atsedenean: 11-8.

Arantzazu Ezkibel

Denboraldiko lehenengo norgehiagokan berdinketa lortu zuen Aloñak. Etxekoen aurrean partidu ona egin zuten ofatziarrek, erasoan ondo jokatuz.

Partidua ondo hasi zen etxekoentzat. Erasoan bizkor jokatu zuten eta jaurtiketa asko egin zituzten. Hori bai, jaurtiketa asko egin arren, hutsak ere asko egin zituzten. Hala, gehiago merezi bazuten ere, hiru goleko abantailaz joan ziren etxekoak aldageletara. Bigarren zatian gauzak guztiz aldatu ziren Zubiko kiroldegian.



JOSETXO ARANTZABAL

laz mailaz jaitsi zen Aloña. Aurten, hasiera ona izan dute ligan.

BI JOKALARI GUTXIAGO

Basaurik aurre hartu zuen eta partidua amaitzeko lau minutu falta zirela lau goleko abantaila

zuen. Azken minutuetan, baina, bizkaitarrak bi gutxiagorekin geratu ziren eta etxekoek partidu berdintzea lortu zuten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILA NAZIONALA
Ford Mugarri-Romo 24-28

LEHENENGO TERRITORIALA
Hegialde Aurtu-Arrasate eskub. 25-22
Tolosa-Bergara 44-32

EMAKUMEZKOEN GOREN MAILA
Verkol Aloña-Basauri 22-22

JUBENILAK MUTILAK
Bergara-Ereintza 26-29
Aloña Mendi-La Salle Legazpi 35-17

JUBENILAK NESKAK
Verkol Aloña- Leizaran 16-16

KADETE NUTILAK
Goierri OET-Aloña Mendi 37-29
Leizaran-Gatz Museoa Jakion 24-28

KADETE NESKAK
Ereintza-Verkol Aloña 18-30
Cocinas Aiala-Arrasate 40-2

• LEHENENGO MAILA

Hiru puntuko jaurtiketak nagusi

Mugarri Alkesak hiru puntuko 17 jaurtiketa lortu zituen zapatuan Erro-Eugiren aurka Iturripen jokaturako norgehiagokan

MUGARRI ALKESA

93-74

ERRO EUGI

Mugarri Alkesa | Gamarra (20), I. Zeziga (5), Mallabiarrena (6), Barberena (14), Kintana (16), Hernandez (6), Lizarriturri (12), Biain (10) eta Isasa (4).

Erro- Eugi | Gomez (3), Bernabe (8), Ayanz, Elortza (10), Miranda (7), Otxotorena (12), Ardaiz (6), Sobrino, Etano (10), Yoldi (17) eta Foronda.

Laurdenak: Lehenengo laurdena, 24-12. Bigarren laurdena, 49-39. Hirugarren laurdena, 76-49. Laugarren laurdena, 93-74.

Mireia Bikuña

Hiruko jaurtiketetan trebetasuna dutela erakutsi zuten zapatuan Mugarri Alkesako jokalariek. Erro-Eugi taldeak zuen desabantaila bost puntura murriztu zuenean, arrasatearrek hiru puntuko jaurtiketak erabili zituzten markagailuan errenta handitzeko.

LEHEN LAURDENA, OSO ONA

Mugarri Alkesak oso ondo jokatu zuen partiduko lehen laurdena. Erasoan zein defentsan lan ona egin zuten. Hasieratik tartea zabaldu zuten markagailuan (9-0). Erro-Eugi taldeak ez zuen punturik lortu 6. minutu arte. Hala, arrasatearrek abantaila handitzea lortu zuten. Lehen laurdenean amaieran, 24-12 ziren aurretik.

Bigarren laurdena parekatua izan zen. Tarte hartan Erro-Eugi taldeak Mugarri Alkesak baino puntu gehiago egin zituen.

Hasierako minututan markagailua asko parekatu zen -28-23-. Bada, etxeko taldea abantaila mantentzeko gai izan zen hiruko jaurtiketen bidez. Atsedenean, Zurututzaren taldea zen aurretik markagailuan: 49-39.

HIRUGARREN LAURDENA

Lehen laurdena ona izan bazen, hirugarrena zer esanik ez. Bikain jokatu zuten arrasatearrek. Hiru puntuko jaurtiketekin abantaila handitu zuten. Erro-Eugi taldeak puntu gutxi egin zituen tarte



JOSETXO ARANTZABAL

Iker Lizarriturri (13 zenbakidunak), 12 puntu lortu zituen zapatuan.

hartan; hamar besterik ez. 24 puntuko abantaila izan zuen Mugarri Alkesak hirugarren laurdenean (73-49).

Azken laurdenean, markagailuko errenta handitzen joan zen arren -33 puntuko errenta izatera iritsi ziren-, Zurututzaren taldeak ez zuen ondo jokatu. Erro-Eugi taldeak presio ona egin zuen kantxa osoan. Hala, markagailua itxuratzeko bidea izan zuten.

HURRENGO PARTIDUAK

Azkeneko bi partiduak Arrasaten jokatu ondoren, asteburuan Paduraren aurka jokaturako du Mugarri Alkesak.

Horren ondoren, azaroan, lau partidu jokatu dituzte jarraian Arrasaten. Ventanas Leon, Urdaneta, Promociones Legarcia eta Mapy TV taldeen aurka, neurturen dituzte indarrak, hurrenez hurren.

• NESKEN TXAPELKETA

Taula azpia ondo babestu zuten

ESKORIATZA

81-41

LASARTE-ORIA

Eskoriatza | Calderon (2), Laborda (8), Gomez (3), Caceres, Balzategi (1), Alarcia, Usabiaga (20), Exposito (17), Soriano, Etxeberria (6) eta Serrano (19).

Lasarte Oria | Garcia (10), Corbacho (2), Izquierdo (2), Redondo (9), Castro (14), Alonso (4), Landa eta Tojbas (1).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 21-11. Bigarren laurdena 59-35. Hirugarren laurdena 59-35. Laugarren laurdena 81-41.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak defentsan egindako lan onari esker garaipen samurra eskuratu zuen zapatuan Intxaurtxueta kiroldegian.

Etxekoak sendo aritu ziren defentsan, taula azpia ondo babestu zuten eta errebotean nagusi izan ziren. Aipatzekoa da Ixone Serranok errebotean egindako lana.

ERRITMO AZKARRA

Eskoriatzak erritmo bizia jarri zuen. Hala, jokalarien gaztetasunaz baliatu ziren azkar jokatu eta aurkaria ahultzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

Liga hasiera ona egin dute: bi partidu jokatu eta biak irabazi dituzte.

Erasoko jokoan baloia ondo mugitu zuten; espazioak sortu zituzten eta jaurtiketa erosoak egin zituzten. Usabiaga (20), Serra-

no (19) eta Exposito (17) izan ziren tanto gehien egin zituzten jokalariek. Datorren astean oñatiarren aurkako derbia izango dute.

• GIPUZKOAKO TXAP.

Garaipen garrantzitsua lortu zuten

A.G.

Arrasateko gazte mailako saskibaloia taldeak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen Cafes Aitona taldearen aurka: 85-78.

HASIERA PAREKATUA

Lehenengo bi laurdenak oso parekatuak izan ziren. Atsedenean berdinketa zen nagusi, 44-44. Hala, lehia hirugarrenean erabaki zen. Tarte hartan arrasatearrek hobeto jokatu zuten.

Azken laurdenean Cafes Aitona taldeak egindako presioari ondo erantzun zioten.

• GAZTEAK, NESKAK

Etxean erraz nagusitu zen Eskoriatza

A.G.

Eskoriatzak 63-19 irabazi zion Andraitzi etxean. Partidua lehenengo laurdenean erabaki zen; 20-5eko partziala egin zuen Eskoriatzak alde.

HIRUTIK HIRU IRABAZI

Eskoriatzak partidu ona jokatu zuen. Defentsan sendo aritu ziren eta erasoan ez zuten hutsik egin taula azpian. Laurdenetako emaitzak hauek izan ziren: 20-5, 10-8, 19-2 eta 14-4.

Eskoriatzak jokaturako hiru partiduak irabazi ditu.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Mugarri Alkesa-Ero Eugui 93-74

SENIOR MUTILAK

Katu Kale-Aloña Mendi 48-71

Candy atsedena

SENIOR NESKAK

Andraitzi-Aloña Mendi 43-22

Eskoriatza-Lasarte Oria 81-41

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Aitona 85-78

Aloña Mendi-Andraitzi 57-40

JUNIOR NESKAK

Eskoriatza-Andraitzi 63-19

KADETE MUTILAK

Ford Mugarri-Zaher 65-66

Bera Bera-Eskoriatza 48-24

Eskola kirola

OÑATI

Osasunerako ona bada ere, ondo pasatzea da umeen helburu nagusia

Oñatiko Zubikoa kiroldegian izan ginen bertako neska mutikoen partiduak ikusten

Astean hiru edo lau egunetan egiten dute kirola Oñatiko gaztetxoek

Neskak saskibaloian eta mutilak areto futbolean aritu ziren zapatuan Zubikoan

Arantzazu Ezkibel

Oñatiko Zubikoa kiroldegian izan ginen zapatuan herriko gazte-txoek partiduak ikusten, hasi da eta, eskola kirola. Goizean goiz jaiki eta kirola egiten hasteko irrikatan ikusi genituen gaztetxoak.

HELBURUA ONDO PASATZEA

Kirola egitea osasuntsua dela gauza jakina da. Baina etxeko txiki-ek ondo pasatzeko egiten dute kirola. "Osasunerako ona dela badakigu baina guk lagunekin ondo pasatzeko egiten dugu kirola", esan ziguten Zubikoa kiroldegian bildutako gaztetxoek.

Eskola orduetan astean birritan egiten dute kirola haurrek. Baina eskola orduetatik kanpo ere kirola egitea atsegin dutela esan digute. "Eskola orduetatik kanpo ere egiten dugu kirola. Lagunen artean gaudenean ondo pasatzeko jokatzen dugu eta kirol guztietan aritzen gara", adierazi ziguten gaztetxo hauek.

DENETARIKO KIROLAK

Eskolako orduetan futbolekin jokatzen dute gehien. Hala ere, saskibaloia eta tenisa oso gustuko dutela esan ziguten: "taldekako kirolak nahiago ditugu, baina tenisean ere gustura aritzen gara". Norgehiagoka hauen helburua gaztetxoek kirola egiteko aukera izatea da.



Sugandilak Txantxiku Ikastola. Irati, Nagore, Miren U., Alazne, Ainhoa P., Julene, Mireia, Izar, Maider, Miren G., Amaia eta Ainhoa B.



Txotx! Txantxiku Ikastola. Irati, Nagore F., Miren, Ainhoa, Nagore B., Leire, Nerea eta Garazi elkartu ziren saskibaloian aritzeko.



Urbia. Unai, Ekaitz, Iñigo, Asier, Andoni, Beñat, Josu, Jon, Ibon eta Mikel aritu ziren areto futbolekin jokatzen kiroldegian.



Oltza. Jon Eneko, Jason, Asier, Xanti, Auritz, Beñat M., Gorka eta Beñat U. areto futbolekin jokatzen aritu ziren.

• KIROLA EGITEA ONA DELA USTE DUTE GAZTETXOEK



UNAI ETA IBON | URBIA

"Kirola egitea ona da. Guk asko egiten dugu", esan ziguten Oñatiko bi gazte hauek. "Gehien futbolekin jokatzea gustatzen zaigu baina baita bizikletan ibiltzea ere".



EKAITZ ETA BEÑAT | URBIA

"Kirol guztiak egiten ditugu, kirola egitea ona da-eta", esan ziguten Ekaitzek eta Beñatek. Lagunekin edo bakarrik egiten dute kirola bi oñatiar gazte hauek.



LEIRE | TXOTX

Leirek kirola ikastolan egiteaz gain denbora librean ere egiten du. "Osasunerako ona da kirola egitea", esan zigun.



GARAZI ETA NAGORE | TXOTX


Kirola maiz egiten dute bi neska hauek. "Ikastolako orduetan egiten dugu gehien, baina denbora librean egitea ere gustatzen zaigu", esan ziguten Garazik eta Nagorek.



JOSEBA ETA GORKA | OLTZA

"Egunero egiten dugu kirola; ikastolako orduetan futbolekin eta denbora librean pilotan egitea atsegin dugu", esan ziguten Josebak eta Gorkak partiduen ostean.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK ESTRADOS

www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK ZUMADIA

www.zumadia.com

AKADEMIAK BASTIDA

www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK BZ-SISTEMAS

www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI

www.marrubi.com

ARETOAK 360 ARETOA

www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK MARIA JESUS

www.mjargazki.com

AROZTEGIAK ARREGI

www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE

www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK BRIZ ASEGURUAK

www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

WINTERTHUR

www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA AUTOS ARETXA S.L

www.autosaretxa.com

AUTOS RIBEGOLA -BMW-

www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT

www.goiena.net/blogak/gallastegi

JC RACING

www.goiena.net/blogak/jcracing

AUTO-KONTZESIONARIOAK 4QUATTRO 4

www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK BARCELO

www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA OSCAR VITORIA

www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK ARETXARGI

www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK SETALDE

www.setalde.com

ERAIKUNTZAK CONSTRULAN

www.construlansl.com

ERROTULOAK PANDO

www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK ANGELA

www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER

www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA

www.lilura.com

MAIER

www.goiena.net/blogak/richimaier

GARBIKETAK HEMEN

www.hemen-garbiaketak.com

GIMNASIOAK IRUDI SPORT

www.goiena.net/blogak/irudisport

HARATEGIAK LANDALUZE

www.landaluze.com

HAUR PARKEAK OKIPARK S.L.

www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK URDEKI

www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK CIM-OÑATI BAI & BY

www.cim-idiomas.com

HOTELAK HOTEL MONDRAGON

www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK RICHI

www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA DCA COMPANY

www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA HARRILUR

www.harrilur.com

INMOBILIARIAK ANBOTO

www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL

www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI

www.inmokorosti-com

UDALATX

www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK GERTU

www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK MARKIEGI

www.goiena.net/blogak/markiegi

UDALAITZ

www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK BASTER ALDE

www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL

www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA

www.goiena.net/blogak/dukiena

MAULANDA

www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK TALLERES CARPinsa S.L.

www.carpinsa.com

LANDETXEAK UXARTE LANDETXEA.

www.goiena.net/blogak/uxarte

LEIHOAK ARGI-PLASTIK

www.goiena.net/blogak/argi-plastik

EGO

www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK EKILORE

www.goiena.net/blogak/ekilore

MAYTE

www.goiena.net/blogak/mayte

ONETAKOAK KORO ZABALETA

www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK AIASTUI

www.goiena.net/blogak/aiastui

OPARIAK MERKEOPARI

www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK

www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK ADOX

www.adoxnet.com

SKATE&SNOW LAINO

www.laino.info

SUKALDEKO ALTZARIAK BASTIDA SUKALDEAK

www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK EZKUTU

www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

GUREA

www.goiena.net/blogak/gurea

HAMAIIKA

www.goiena.net/blogak/hamaikataberna

ORLY

www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ZIRIPOT

www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK GANESHA

www.goiena.net/blogak/ganisha

TAXIAK GORKA GARAI

www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA

www.aizue.com

UMEENDAKO ARROPA HAURT XOA

www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK URBIETA

www.goiena.net/blogak/urbietta

ZERBITZU DIGITALAK ATAI

www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA ELEJALDE

www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Mendi Bizikleta

• ESKORIATZAKO XVII. MENDI BIZIKLETA IBILALDIA

240 lagun elkartu ziren Eskoriatzako irteeran

40 kilometroko ibilbidea egin zuten parte-hartzaileek. Plazatik irten eta Apotzagarantz abiatu ziren

Arantzazu Ezkibel

Uste bezala, jende mordo bildu zen atzo Eskoriatzan urteroko mendi bizikleta ibilaldia egiteko. Guztira 240 txirrindularik hartu zuten irteera goizeko 9:30ean. 40 kilometroko ibilaldia izan zen. Parte-hartzaileak plazatik atera eta Apotzagarantz hartu zuten. Gero, Jarindo eta Urraxera igo eta berriro ere plazara itzuli ziren txirrindulariak.



JOSETXO ARANTZABAL

Irteeran 240 lagun bildu ziren bizikleta ibilaldia egiteko.

LOKATZA ASKO

Azken egunetan egin duen euria dela-eta, ibilaldia lokaztuta zegoen. Hala, zati batzuetan, parte-hartzaileek bizikleta eskuetan hartu eta oinez igo behar izan zituzten hainbat aldapa. Ibilaldia gogorra izan zen, baina polita aldi berean. Hori da bertaratutako guztiek esan zigutena. Goiza animatzeko asmoz, trialsin erakustaldia ere antolatu zuten herriko plazan. Aitor Murua, Ander Lezeta, Harri Anziza eta Josu Viejo plazan zeuden ikusleak animatu guran aritu ziren.

ANTOLAKUNTZA BIKAINA

Parte hartzaileak gustura zeuden antolakuntzarekin. Arlaban gainean jana eta edana izan zuten eta baita helmugan ere, herriko plazan. Udaleko kultura sailak antolatzen du ibilaldia.

• TXIRRINDULARIEK HORRELA IKUSI DUTE IBILBIDEA



ANDER ZABALETA | OÑATI

“Ibilbidea gogorra izan da”, esan zigun Anderrek ibilaldia amaitu ostean. Lokatza asko zegoela esan zigun. Antolakuntza, berriz, bikaina iruditu zitzaion: “Beti bezala oso ondo”.



ASIER ELKOROBARRUTIA | ARETXABALETA

“Oso polita izan da. Niri, inguruko ibilaldietatik gehien gustatzen zaidana da”, esan zigun Aretxabaleto lagunak. Lokatza asko egon arren samur egin zuten ibilaldia.



JON ANDER IBABE | OÑATI

Jon Anderrek bere bigarren ibilaldia zuen atzokoak. “Gogorra izan da, lokatza asko zegoen-eta”, esan zigun Eskoriatzako plazan. Hala ere, ibilaldia oso polita iruditu zitzaion.

Errugbia



JOSETXO ARANTZABAL

Garagartzan jokatu zuten errugbi partidua zapatuan

Arrasateko errugbi taldeak galdu egin zuen

Mireia Bikuña

Liga txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan, Arrasate eta Bilbo errugbi taldeek. Bigarren zatian Bilbo taldeak trebetasun handiagoa erakutsi zuen. Hala, garaipena eskuratu zuen.

HIRU ENTSEGU JARRAIAN

Lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Arrasatearrak aurretik izan ziren markagailuan, 6-5.

Bada, bizkaitarrek hiru entsegu egin zituzten jarraian eta emaitzari buelta eman zioten; 6-27 nagusitu ziren.

• MONDRAK KAMISETA BERRIA AURKEZTU DU



AE

LUIS ARKONADA IZAN ZEN AURKEZPENEAN

Mondrak hurrengo hiru urteetan erabiliko duen kamiseta aurkeztu zuten egubakoitzean. Obenerreka izango da Mondraren babesle berria datozen urteetan. Elkarteko kideez gain, Juan Larzabal Obenerrekako gerentea, Astoreko Iñigo Atorrasagasti eta Luis Arkonada Realeko atezain ohia egon ziren aurkezpenean.

Pilota

Martinez de Irujok final laurdenetarako txartela lortu zuen atzo Bergaran

Xalaren aurka jokatuko du lau t'erdiko hurrengo kanporaketa

Mireia Bikuña

Gora behera askoko partidua jokatu zuten atzo Juan Martinez de Irujok eta Asier Berasaluzek.

Partiduko lehen sakea egi-tea Berasaluze IX.ari egokitu zitzaion. Baina Iberoko pilota-

ria izan zen lehen 13 tantoak jarraian egin zituen. Bi pilotariak sakatzaile onak dira. Hala, hasierako tantoak oso azkarrak izan ziren.

Berasaluzeren lehenengo tantoa (13-1) asko txalotu zuten zaleek. Haren ondotik beste hamar tanto egin zituen Berriz-

koak jarraian. Markagailuak 13-11 erakusten zuen.

Hamalagarren tantoa gorria izan zen. Handik amaiera arte Martinez de Irujok jokatu zuen hobeto.

FINAL LAURDENAK

Martinez de Irujok egubakoitzean jokatuko du final laurdenetako kanporaketa Xalaren aurka. Zarauzko frontoian izango da.



JOSETXO ARANTZABAL

Martinez de Irujok bederatzi tanto egin zituen sakez.

Iurgi Lazkano bergararra da Musakolako Kiroldegian zabaldu berri duten muskulazio gelako monitorea. 25 urte izan arren, ondo daki gimnasioko lana nola egin behar den,

horretarako ikasi zuen-eta Gasteizen Heziketa Fisikoa Orain berak ikasitakoa erakutsi nahi die forma onean jarri nahi duten guztiei. Oraingoz jendeari aholkuak

eman eta entrenamendu taulak prestatzen dabil, baina hemendik hilabete batzuetara, nahi duenak entrenamendu espezifikoak ere egian ahal izango du berarekin.

IURGI LAZKANO | MUSAKOLAKO KIROLDEGIKO MUSKULAZIO GELAKO MONITOREA

"Hiruzpalau hilabete behar izaten dira hobekuntza igartzeko"

Jokin Etxebarria

Zabaldu berri duzue Musakolan muskulazio gela. Zer aurkitu daiteke bertan?

Lehen zegoen gimnasioari itxura goitik behera aldatu diogu. Margotu egin dugu, lur berria jarri diogu, eta makina gehienak ere berriak jarri behar izan ditugu. Lehen zegoen arduradunak bere makinak eraman zituen eta hau hutsik gelditu zen. Beraz, makinak ere berriak dira.

Era guztietako makinak aurkituko ditu hona gerturatzen denak. Makina kardiobaskularrak: bizikletak, zintak, arrauna egiteko makina eta *stepak*... eta pisuak eta muskulazio ariketak egiteko makinak ere bai, jakina. Guztira, 30 makina inguru daude eta horretaz aparte beste gelatxo bat ere badaukagu pisu libreekin. Hor barrak, pisu txikiak eta abar aurki daitezke.

Zu zara hemengo monitorea, baina zehazki zein da betetzen duzun funtzioa?

Gela hau 14 orduz irekita egongo da egunero, eta erabile-ra librea dauka. Hau da, etortzen denak ez dauka zertan nirekin edo beste monitorea batekin egon beharrik. Zu hona zatoz, zure ariketak egiten dituzu eta kito.

Ni zortzi orduz egongo naiz bertan eta hasiera batean taula pertsonalizatuak prestatuko ditut eta aholkuak emango ditut ariketak egiterako orduan. Hau da, lanean hasi baino lehenago, test eta proba batzuk egiten ditugu, jendeari galdetzen diogu bere ohiturak zeintzuk diren eta zein helbururekin datorren eta horren arabera taula pertsonalizatu bat presatzen dugu. **Hortaz, entrenamendu pertsonalizatuak ere egiten dituzue.**

Bai, hauek hasiera batean gaineratik egingo ditugu, baina aurrerago, eta hasierako lan eskergea pasatzen denean, gure asmoa da beste zerbitzu bat gehitzea: zerbitzu hori denbora luze-rako planifikaziotan datza, askoz zehatzagoak eta pertsonalizatuagoak.

Adibidez, triatleta bati egin beharko lukeen lana gomendatuko genioke; Behobiako proba prestatzeko aholkuak emango genituzke; edo zergatik ez, suhiltzaile probak gairatu nahi dituenak ere, hemendik pasatzeko aukera dauka zer nolako ariketak egin beharko lituzkeen jakiteko.

Edozeinek eman dezake izena hemen, edo fisikoki kondizio minimo batzuk eduki behar dira?

Ez, edozein etorri daiteke hona. Azken finean gure helburua denontzako zerbitzu bat bideratzea da, eta lehen esan dudana bezala, nola taulak pertsonalizatuak diren eta aurretik galdetuta bat egiten den, ez da arazorik izaten.

Ez da jende gaztearentzat pentsatutako zerbaite soilik. Nagusiak ere etortzen dira eta arazo fisikoak dituztenek ere ez dute arazorik etortzeko, batez ere errehabilitazio lanak egin behar dituztenek aukera polita dutelako hori hemen lantzeko.

14 ordutan zabalik egongo da gimnasioa, baina zein da edukiko duen ordutegia?

Gela hau kiroldegiarekin batera irekitzen da, 07:30ean eta 21:30 arte ez da ixten. Hala eta guztiz ere, nire ordutegia laburragoa da. Ni goizeko 09:30etik eguerdiko 14:30era eta arratsaldeko 16:30etik itxi arte egongo naiz.

Hala eta guztiz ere, hau hasiera bateko ordutegia besterik ez da izango. Izan ere, gerora jendearen ordu ohituren arabera gurea moldatzeko intentzioa daukagu eta.

Zenbateko kostua suposatuko lioke bertan izena eman nahi duen bati?

Bi tarifa ezberdin ditugu. Kiroldegiko bazkide direnek merkeago dute, hilean 24 euro. Eta bazkide ez direnentzako 10 euro gehiagoko kostua dauka; hau da, 34 eurokoa. Tarifa horren barruan ariketa taulak, hasierako test eta probak eta makinak nahi beste erabiltzeko aukera sartzen dira.



JOKIN ETXEBARRIA

Irakasten bakarrik ez, ariketa fisikoak egiten ere ibiltzen da Iurgi Lazkano.

Prestaketa espezifikoago bat nahi izanez gero, beste tarifa desberdin bat ordaindu beharko litzateke. Baina zerbitzu minimoaren barruan lehen esan dizudan guztia sartzen da.

Sasoian onenean jartzeko pertsona batek zenbat denbora behar izaten du normalean?

Hor parametro ezberdinetan sartuko ginateke. Adin kontuak, bakoitzaren sasoa... Zenbat eta

urte gehiago eduki orduan eta zailagoa da hobekuntzak lortzea. Baina egunerokotasun bati lotuz gero, lehen hilabete eta erdian hasiko ginateke nabaritzen gure gorputzaren hobekuntzak. Hala ere, horiek mantendu egin behar dira eta horretarako ere ariketa batzuk egin.

Nire ustez hiruzpalau hilabete beharrezkoak dira hobekuntza dezente bat lortzeko.

Eta normalean, jendea egunero etortzen da, edo beste maiztasun bat edukitzen du?

Hori bakoitzaren ohitura eta gustuek markatzen dute. Denetik dago. Asko gustatzen zaion jendea egunero ikusiko duzu hemendik pasatzen dela euren ariketak egitera. Badaude beste batzuk ordea, obligazio modura hartzen dutenak; bai medikuak aginduta, edo euren buruari behartuta. Horiek astean behin edo birritan etortzearekin nahikoa izaten dute.

GoienaSportek kudeatzen du muskulazio gela

Nahiz eta Arrasateko kiroldegian egon, ez du Udalak kudeatzen muskulazio gela, GoienaSport enpresa pribatuak baizik. Sei urterako esleipena lortu du enpresa horrek gela hori kudeatzeko, nahiz eta urtero-urtero berritu beharko duen kontratua.

Bixen Calzonen ardurapean dagoen enpresa honentzat ez da arrotza lan hau. Izan ere, Debagoieneko beste kiroldegi batzuetan ere kudeatzen ditu hainbat gune.



**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Gaurtik aurrera salgai daude Seussen Mundua musikala Bergaran ikusteko sarrerak | 25
- Bihar kaletaratuko dituzte Oñatiko eskulan ikastaroetako zerrendak | 27

Ortophonk eta Wagon Cookin' taldeek irekiko dute III. Debajazz musika jaialdia | 27

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



Soinu indartsua eta tinkoa izan zuten Ozen taldekoek egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

DANBAKA | IKUSLEEI DAGOKIENEZ ERE ERANTZUN POLITA IZAN ZUEN JAIALDIAK

Ilusioz eta gogotsu irten ziren lau taldeak zuzenekoan lehen saioan

Azkaiter Peloxek dotore eta gertu hautsi zuen izotza; Drakekoek giroari bikain eutsi zioten; Klaksonekoak ezusteko atsegina izan ziren eta Ozen taldea gogoz eta indar handiz atera zen

Jon Berezibar

Estilo eta kolore nahasketa bitxiarekin, abian ditugu egubakoitzetik Danbakako zuzenekoak. Rocka, popa, metala eta punka, eskutik hartuta joan ziren musika lehiaketako lehen kontzertu sortan eta gustu guztietarako moduko zuzenekoak egon ziren. Partaide bakoitzak euren armenkin, ondo jakin zuten egindako musika defendatzen eta denetarik ikusi zen.

Izotz-hausle ezin aproposagoa izan zuen egubakoitzeko gauak. Nor Azkaiter Pelox baino hobe giroa berotu eta ikusleak prestatzeko. Gitarra gainean eta ohiko ileorde eta antzerakoak ahaztuta, dotore jantzita agertu

zen bergararra Espaloiko eszenatokira. Bakarrik egonda ere oholtzaren jaun bihurtu eta ikusleengana hurbiltzen jakin zuen Peloxek, haren abesti elektrikoekin lagunduta. Eszenatokian egoten dakiela garbi utzi zuen Azkaratek eta komunikatzeko gaitasun inbidiagarria erakutsi zuen.

Aurrekoaren energiari eutsi eta biderkatzeko gai izan ziren Drakes txantxikuak ostean. Punk-rock klasikoa da haiena, ezer berririk ez dakarrena, baina bat baino gehiago mugiarazi zuena. Ilusioa eta ondo pasatzeko gogoia antzematen zitzairen, eta hori ere eskertzekoa da.

Klaksonekoen kasuan pixkanaka berotzen joan zen gauza.

Fitxa teknikoa

• JENDE KOPURUA

320 bat lagun. Lehen saioa izateko jende kopuru polita bildu zuen jaialdiak. Jakin min handia zegoen aurtengo Danbakarako.

• ARGIA ETA SOINUA


Soinua, 6.000 watt; argia, 60.000 watt (Gorka Arizmendiarrrieta). Soinuak gorabeherak izan zituen; tarteka ez zen hain ondo entzuten.

• GORABEHERAK

Giro polita egon zen. Taldearen arabera entzule gehiago edo gutxiago egon ziren.

Abestirik abesti gero eta erosoago ikusten zitzairen eta kontzertu benetan atsegina egin zuten pop, rock, psikodelia eta umorea behar bezala tartekatuz. Euren bosgarren zuzenekoak izan zen egubakoitzeko eta ez ziren hain txarto moldatu. Azkenak, Ozen taldekoak, sasoi betean aurkeztu dira errebalidara. Indartsu, gogoz eta abesti landuagoekin talde trinkoa direla frogatu zuten. Haien azken fitxaketak, teklatu joleak, kolorea eta argitasuna eman zion arrasatearren heavyari. Talde bakoitzak estilo aldeetik izaera oso ezberdina dute baina guztiek ezaugarri bat izan zuten komunean, gogotsu eta guztia emateko prest irten zirela oholta gainera.

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



AZKAITER PELOX | BERGARA

Adituak esana /
Arkaitz Biain, musikaria

"Oso entretenigarria izan da ze oso tipo komunikatiboa da, artista bat da. Eskarmentua duela agerikoa da, urte asko ibili da makina bat proiektutan eta oso ondo daki komunikatzen".

Ikusleek esana / Unai Arbisu

"Ez naiz bakarlarri zalea baina esan behar dut Azkaiter Peloxen ikuskizuna asko gustatu zaidala. Eszenatokian egoteko era, ikusleekin komunikazioa, jarrera freskoa zeukala irudi zait eta gustatu egin zait. Eszenatokian bera bakarrik egoteko ondo moldatu da bere burua defenditzen".

Kazetariak esana / Jon Berezibar

"Ikuskizun ona izan da bergararrarena. Eszenatokian egoten daki eta horrek mesede handia egiten dio. Berak bakarrik, eszenatokia eta inguruak betetzen jakin du eta hori ez da gutxi".

Musikariak berak esana

"Gustatzen zait neu bakarrik ikusleen aurrean jartzea eta alde horretatik ez daukat inongo arazorik. Gustura nago egindakoarekin, ondo egon dela uste dut. Gaur ileordeak eta piurak alde batera utzita dotore etorri naiz, ezkontza baterako arropa eta guzti. Oso gustura egon naiz, betiko moduan".



DRAKES | OÑATI

Adituak esana /
Arkaitz Biain, musikaria

"Taldea oso bizia iruditu zait. Oholtza gainean indartsu eta sinisgarri ikusi ditut, oso ondo pasatzen. Zer edo zer azpimarratzekotan esango nuke bizia izan dela kontzertua eta eurei ere oso gustura ikusten zitzaien".

Ikusleek esana / Unai Arbisu

"Askok gustatu zaizkit hauek, erritmoa, gogoia eta giro ona ipini dute. Betiko punk-rock da eurena eta nik gogoki dut musika hori. Zentzu horretan ondo egon direla iruditzen zait. Eurei ere gustura ikusten zitzaien".

Kazetariak esana / Jon Berezibar

"Freskotasuna eta bizitasuna eman diote jaialdiari; kontzertu zuzena eta azkarraren izan zen oñatiarrena. Originaltasunarengatik ez dira azpimarragarri baina erakutsitako freskotasuna eta gogoia nahikoak izan dira euren abestiak defendatzeko. Ondo pasatu zuten eurak eta baita ikusleek ere".

Taldekiek esana

"Oso gustura egon gara, ederto pasatu dugu. Lagunak lehen ilaran izan ditugu animatzen eta horrek piztu egin gaitu. Giro polita egon da, soinua ere ondo eta esperientzia bikaina izan da".



KLAKSON | ANTZUOLA-ZUMARRAGA

Adituak esana /
Arkaitz Biain, musikaria

"Ondo egonda. Estilo klasikoa lantzen dute baina azkenaldian Euskal Herrian gutxi entzundakoa. The Doorsen ukituak, teklatuak... proposamen polita da. Diferentea izan da aurkeztu dutena".

Ikusleek esana / Unai Arbisu

"Ez nago oso ohitua mota horretako musika entzuterara baina gustura egon naiz, polita iruditu zait eta oso entzungarria, gainera. Guztietatik ezagutzen ez nuen talde bakarra izan da baina entzuteko moduko kontzertua egin dutela iruditzen zait".

Kazetariak esana / Jon Berezibar

"Abestirik abesti hazten joan da taldea eta poliki-poliki berotzen joan dira. Teklatuarekin eta abeslaria hara eta hona ibilita, psikodelia puntu bat eta guzti izan dute Klaksonekoek eta hemen inguruan ez gaude proposamen hain koloretsuetara ohituak. Alde horretatik ondo".

Taldekiek esana

"Motza eta guzti egin zaigu. Ez ditugu oraindik zuzeneko larregi eman eta oso zorrotzak gara gure buruekin eta gauzak ondo egin gura ditugu. Oso inpresio onarekin amaitu dugu gaurkoa, gustura ibili gara".



OZEN | ARRASATE

Adituak esana /
Arkaitz Biain, musikaria

"Bi urtetik hona izandako garapena argia izan da, oholtza gainean asko hobetu dute, baita teknikoki ere, oso onak direla esango nuke. Abesti berriei dagokienez, konposaketa berriek erakargarritasun gehiago daukate, landuagoak dira. Soinua izan dute aurka, oso txarra izan da eta. Eurak oso ondo ikusi ditut".

Ikusleek esana / Unai Arbisu

"Taldea ezagutzen nuen aurretik eta abesti berriak ere gustatu zaizkit. Olatz teklatuetan ere asko gustatu zait, irabazi egin dutela uste dut".

Kazetariak esana / Jon Berezibar

"Tinko hasi eta tinko bukatu zuten arrasatearrek jaialdia. Oso ondo jo zuten eta abesti berriak gehiago mamitu dituztela ikusi zen. Fitxaje berriak, Olatz teklatuak, kolorea eman dio Ozenen musikari eta gainontzeko taldekideak ere fin. Behar moduko emanaldia izan zen, neurrikoa".

Taldekiek esana

"Ahal genuen guztia eman dugu eta ondo joan dela uste dut, ez gara geratu behintzat guztia ez emanaren damuaz. Oso gogotsu ibili gara, eszenatokia jatera joan gara, horrela behar du eta!".

DEBAGOIENEKO II. MUSIKA LEHIAKETA



Tilarekin hasi eta dantzan bukatu

Maidar Arregi/Usoa Agirre

Irrikitzen geunden Danbakako kontzertuak noiz hasiko eta iritsi zen eguna! Aukera paregabea eskaintzen du lehiaketak ibarreko talde berriak ikusteko; musikarekin batera, giroa ere paregabea izaten da. Taldeak urduri nabaritu genituen kontzertuak hasi aurretik. **Klaksoneko** abeslariak, **Mikelek**, tila ere hartu behar izan zuen afaldu ostean. Baina, guztiaren gainetik ilusio handiz igo ziren denak taula gainera. Pozgarria da talde eta estilo berriak ikustea, baita musikari gazteen ilusioa ere. Guztiek dena eman eta izerdi patsetan amaitu zuten, galdetu bestela **Arzuri**, **Drakesko** bateria jotzaileari. Ai! Jakin izan balute Espaloiko aldageletan dutxak ere bazeudela...

Talde bakoitzaren kontzertuaren aurretik aurkezpeneko bideoa jarri zuten. Barre algarak entzun ziren ikusleen artean, baina ez bideoen kalitatea txarra zelako; lan bikaina egin dute eta Goitb-ko **Txintxu** eta **Amagoiak**. Zorionak! Eta zoriondu beharko dugu **Miki** ere, urtebetetze eguna hasi zuen kontzertuan eta.

Ozenekoek indarrez eman zioten amaiera Danbakako lehen saioari. Ikusleak dantzan eta burua gogor astintzen jarri zituzten arrasatearren heavy doinuek. **Imanol Soriano** ere hor aritu zen, ilea moztuta baina burua astintzen.

Ikusle ugari hurbildu ziren lehenengo kontzertura, eta horien artean Danbakara aurkeztu diren beste talde batzuetako kideak ere bai. Konpetentziaren maila aztertzeraz joan ote ziren? Han izan ziren, adibidez, **Malenkonía**, **Unnäa** eta **Aby-Kem** taldeetako kideak. **Iñigok** esan zigun deseatzan daudela hurrengo kontzertua emateko.

Azkaiter Peloxen ileordeak faltan bota genituen. Baina, bestela primeran joan zen guztia. Aretoan jende asko eta Espaloikoak pozik. Ea hurrengo saioa ere arrakastatsua den.



Mikel Urtzelai, Klakson taldeko abeslaria.



Drakesekoak zuzenean.



Ikusleen aldetik erantzun polita izan zuen lehen jaialdiak. 320 bat lagun hurbildu ziren Espaloira.

• ENTZULEEK ERE EUREN IRITZIA EMAN ZIGUTEN

NEREA AGIRRE |
URRET XU

“Lehiaketa asko gustatu zait eta harrirituta geratu naiz ikusitako mailarekin, gano-rakzo taldeak eta esperientziadunak izan dira. Klakson gustatu zait eta Azkaiter Pelox ere bat. Beste bi taldeen estiloa ez dut hain gustuko, baina ezin esan txarto ibili direnik gustura egon naiz”.

MAITE IRIZAR |
ARRASATE

“Batekin geratzekotan Ozenekin geratu beharko nuke, aurrera egingo dute ze zuzeneko itzela izan da, taldea benetan fin eta indartsu ikusi dut. Ematen du ondo pres-tatu direla lehiaketarako, ni behintzat konbentzitu egin naute. Orokorrean maila ona egon da”.


MIKEL GUTIERREZ |
ARRASATE

“Oso giro ona egon da. Hasiera baten ez zitzaidan gustatu ze talde sailkatu diren aurten baina gaurkoak ikusita eta nire gustuko estiloak ez direla jakinda gustura egon naiz eta talde onak izan dira gaurkoak. Ez dakit esaten zein izan den onena. Maila ona azpimarratuko nuke”.

EIDER ALBERDI |
BERGARA

“Maila aldetik talde txukunak ikusi ditugula uste dut, ondo ibili direla iruditzen zait. Zaila da bat aukeratzeko ze estilo eta gustu kontua da baina Azkaiter eta Klakson gustatu zaizkit. Nire estiloa ez izan arren Ozen taldeak ere oso maila ona duela uste dut”.

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



Abesti berriekin aurkeztu dira aurten Ozenekoak.




Drakesekoek kontzertu bizia eta azkarra egin zuten.



Goiena Telebistan emango dute lehen kontzertua bihar: Azkaiter Pelox.



Unai Azkarate, Azkaiter Pelox, ezizenez.



Energia izan zen Drakezen ezaugarria.

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

- 1 **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %62,6
- 2 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %18
- 3 **DRAKES**
ONATI
Botoen %10,7
- 4 **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %6,7
- 5 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %1,3
- 6 **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %0,7
- 7 **ABY-KEM**
BERGARA
Botoen %0
- 8 **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %0
- 9 **INAELECTRIK**
ARETXABALETA
Botoen %0
- 10 **IGOR**
ARETXABALETA
Botoen %0
- 11 **JIM TNT&AMAIA**
ARRASATE
Botoen %0
- 12 **LITTLE, LITTLE, MUCH**
ARRASATE
Botoen %0
- 13 **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %0
- 14 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %0
- 15 **MATX**
ELGETA
Botoen %0
- 16 **RAUL LASA**
ARRASATE
Botoen %0
- 17 **SCAM**
BERGARA
Botoen %0
- 18 **UNNEA**
ONATI
Botoen %0
- 19 **YOTOX**
BERGARA
Botoen %0
- 20 **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %0

Kontzertuak

AZAROAK 3

Espaloia | 22:30

- Matx
- Malenkonia
- Belceblues
- Aby-Kem

AITOR BARRUTIA |
ARRASATE

“Ez zait bat bera ere gustatu, ez da egon talde bat bera ere ez originala edo sortzailea izan denik, betikoa ikusi dut eta ikuski-zun aldetik ere ez zait ezer berezia iruditu. Gustatuko litzaidake taldeek gehiago arriskatuko balute eta proposamen ausartagoekin aurkeztea”.

AITOR IZAGIRRE |
ARRASATE

“Gau polita izan da, gustatu zait ikusita-koa. Denetariko estiloak egon dira eta hori eskertzekoa da. Ezustekoa Klaksonekoen hartu dut, ez nituen ezagutzen eta asko gustatu zaizkit. Ezberdina iruditu zait euren musika, originala batez ere, eta hori gustatu zait”.

JULEN NAFARRATE |
ARETXABALETA

“Ozenekoak, aurretik ezagututa eta parte hartzen duten bigarren urtea bada ere, oso fresko egon direla iruditu zait. Niri behintzat hori izan da gehien gustatu zaidana, nahiz eta azkenak jotzeak kalte egiten dion taldeari, ikusleak dagoeneko nekatuta egoten dira eta”.

AINHOA SAIZ |
EIBAR

“Jaialdia gustatu zait ze orekatua izan da taldeen aukeraketa; musika motak kontutan hartuta. Batekin geratzekotan Azkaiter Peloxekin geratzen naiz asko gustatu zait eta zelan *toreatu* dituen ikusleak. Lehen izatea ez da beti erraza izaten baina ezin hobeto moldatu da”.

ERAKUSKETA | ARRASATEKO HARRESI ARETOAN DAGO *POLONIA 3X4* ZERAMIKA ERAKUSKETA

Hiru poloniarren lau obra daude ikusgai Arrasateko erakusketan

Egubakoitzean hasi eta azaroaren 5era bitartean egingo dute Eskoriatzan, Oñatin eta Arrasaten Buztin Erti, zeramika garaikidearen nazioarteko III.topaketa

Goreti Elortza

Barikuan inauguratu zuten Buztin Erti topaketa Arrasaten. Arrasaldeko 19:30etan eman zioten hasiera nazioarteko zeramika garaikidearen hamabostaldiari.

Horretarako, topaketako antolatzaileak Harresi aretoan batu ziren. Inazio Lakuntza (Arrasateko alkatea), Grazyna Bernatowicz (Poloniako enbaxadorea Madrilén), Paulina Pokorny-Ziembra (artista poloniarra) eta Jabier Mercader (topaketako bultzatzaile nagusia eta *ceramikarte.com* aldizkari editorea) izan ziren inaugurazioan hitz batzuk esan zituztenak.

Lakuntzak, eskerrak eman zizkien topaketa hau aurrera eramateko euren laguntza eskaini dutenei eta Poloniako bisitariari ongi etorria eta egonaldi ona opa zien. "Topaketak jarraipena izan dezala" bukatu zuen alkateak. Segidan, Grazyna Bernatowicz enbaxadoreak egin zuen berba. Poloniarrek ere guztien laguntza eskertu zuen eta euren herrialdeko

zeramika erakusteko aukera eman izana ere eskertu zuen. Jabier Mercaderrentzat izan ziren bere laudorio gehienak. Azkenik, Jabier Mercader arrasatearrak luntxera gonbidatu zituen bertaratutakoak.

POLONIAKO ARTEA IKUSGAI

Harresi aretoan bertan aurkitzen da topaketako erakusketak. *Polonia 3x4* izeneko erakusketan, Paulina Pokorny-Ziembra, Adam Abel eta Krystyna Cybinska Poloniako artistek hartzen dute parte. Eta lau lan aurkezten dituzte, zein baino zein bitxiagoa. Madrilko Poloniako enbaxadak prestatu du erakusketak eta Wroclaweko Arte eta Kultura Okis zentroak ere hartu du parte. Bakoitzak bere nortasuna adierazten du lanetan modu oso desberdinean.

Adam Abelen *Untitled*, Krystyna Cybinskaren *Botellas Verdes* eta *Forma* eta Paulina Polorny-Ziembaren *Breve historia de un amor muerto* obrak dira poloniarrek Arrasateko erakusketarako aukeratu dituztenak.



Paulina Pokorny-Ziembra, Gazyna Bernatowicz eta Inazio Lakuntza topaketako inaugurazioan.

JOSETXO ARANTZABAL

Oñati eta Eskoriatzan ere badago zer ikusia

Nazioarteko III.zeramika topaketaren barruan hainbat ekitaldi izango dira Debagoieneko hainbat herritan. Azaroaren 5era bitartean, Arrasatekoaz gain, beste hiru erakusketak izango dira ikusgai, zein baino zein interesgarriagoa.

Oñatiko kultura etxean, *Ceramistes Catalans Euskal Herrian* izeneko erakusketak dago. 20 bat lagun lanak daude

ikusgai, Jordi serra, Mia Llauder, Ramon Fort eta Maria Bosch-enak, esaterako.

Eskoriatzan, bi erakusketak daude. Alde batetik, Marta De Pablos andaluziarrak *Our fear* obrarekin argazkilaritza eta zeramika uztartzen ditu Ibarraundi museoan. Bestetik, kultura etxean HIESAren aurkako Euskadiko batzordeek egindako kartelak jarri dituzte.

Gaurtik aurrera egongo dira salgai Seussen Mundua musikalerako sarrerak

Azaroaren 11n estreinatuko du herrian Bergarako Orfeoia ikuskizuna. Bi emanaldi egingo dituzte

M.B.

Urtarrilean Bilboko Euskaldu-na jauregian estreinatu ondoren, azaroaren 11n herrian egingo du Bergarako Orfeoia Seussen Mundua musikala. Bi emanaldi egingo dituzte: 19:00etan, bata, eta 22:30ean, bestea, udal pilotalekuan. Sarrerei dagokienez, zenbakidunak izango dira eta bi preziotakoak daude, 12 eta 15 eurokoak. Gaurtik aurrera eskuragarri daude Bergarako Debagaraia inbiliarian. Interesatuak hara jo eta

erreserba egiteko aukera izango dute. Gero, astebetera eskuratu ahal izango dituzte sarre- rok leku berean eta orduan ordaindu beharko dira. Horrez gain, pilotalekuko leihatilan ere jarriko dituzte salgai emanaldiaren aurreko astean. Emanaldi bakoitzerako 800 bat sarrera egongo dira salgai.

ALDAKETARIK EZ

Seussen Mundua antzokirako pentsatuta dagoen musikala izan arren, pilotalekuan egiteak ez du inolako aldaketarik eragin obran, baina esfortzu tekniko handia suposatu du. Halaxe azaldu dute asteon egindako prentsaurrekoan. Pilotalekuan egitearen alderdi onak ere azpimarratu zituen Valen Moñuz eszena zuzendariak: "ikusleen hurbiltasuna eta fosorik ez egotean musikalean parte artzen



160 bat lagunek hartzen dute parte Seussen Mundua musikalean.

BENITO CANTERO

duten kide guztiak ikusteko aukera egongo dela", hain justu. Horrekin batera, eskerrak ematen zizkioten Udalarai "eskainitako laguntzagatik suposatzen

duen esfortzu ekonomikoa kontuan hartuta". Luis Abajo kultura zinegotziak ere esker hitzak izan zituen egiten duten lanarengatik Orfeoia eta harekin

batera musikalean aritzen diren Musika Eskolako ume eta musikariendako eta Tolosako Izaskun Arriola taldeko dantzariendako -160 bat lagun guztira-.

MUSIKA | MADRILEKO TALDEAK 'WEAK ON THE ROCKS' ESTREINAKO DISKOKO KANTUAK EGIN ZITUEN BERGARAKO ARETOAN


Denboraldiari agur esan zion Cycle taldeak zapatuan Jam aretoan

Ez zuten konbentzitu zapatuan Cyclek Jamen. Hotz, pasibo eta urrun agertu ziren. Zale ugari gerturatu zen aretora madrildarrak ikusteko baina taldeak ez zuen onena eman

Ainara Agirre

Batzuei etiketak jartzen zaizkie eta Cycleri talde aurrefabrikatuearena ezarri dio hainbatek. Halakoen kontra borroka egiteko moduetako bat dira zuzeneko emanaldiak, baina ez dut uste adabakia kentzeko urratsa eman zuenik Madrilgo taldeak zapatu gauean Jam aretoan egin zuen emanaldiarekin. Eszenatokian pasibo, ikusleekin hotz eta jarraitzaileak zapore ez oso gozoarekin utziz esan zuten agur Cyclekoek zapatuan Bergarako aretoan.

Jende ugari batu zen udara partean horren ezagun egin den taldea entzun eta ikustera. Dantza egiteko asmoz, asko eta asko, baina Cyclek ez zuen askorik eman, ez zen entzuleengana iritsi eta hori nabaritu egin zen. Ordubetik berandu hasi zuten kontzertua, 23:30ean, eta 00:30 aldera egin zuten alde eszenatokitik. Ordubetik, hortaz, iraun zuen emanaldiak, gutxitxo, promozioetan punkaren indarra eta electroaren dantzagarritasuna prometitzen duen taldearentzat. Bis-en garaian beste bat eskatu zuenik ere egon zen eta eskaerari zorrotz kasu eginez, beste kantu bat egin zuten; Ramones taldearen bertsio bat, hain justu



JOSETXO ARANTZABAL

China Patino abeslari eta aktoreak katu jantzita egin zuen Jam aretoko emanaldia.

—emanaldian beste bat ere egin zuten—. Originalak izaten ere ez zuten asmatu, beraz.

Weak on the Rocks diskoko kantu guztiak jo zituzten emanaldian, baina entzuleek gogotsuen hartu zutena *Confussion* izan zen.

Jamen esan zioten agur David Cano (ekoizlea), China Patino (koroak eta *permormancea*) eta Carlos F. Calderonek (gitarra) denboraldiari. Urte eta erdi inguru eman dute euren estreinako diskoa —*Weak on the Rocks*— aurkezteko zuzenekoak egiten. Esta-

'Weak on the Rocks' duten disko bakarreko kantu guztiak jo zituzten

Datorren asteburuan II. Techo Jaialdia egingo dute Jamen 10. urtemugaren barruan

tuan barrena, Europan eta Asian ibili dira eta zapatukoarekin agur esan zieten zuzeneko emanaldiei.

XXI. mendeko erremintez baliatuz, teknologia eta gitarra zaharren doinuak batzen dituzte eta eureak dioten bezala, "elektrotik popera eta punketik teknora bidaiatzen dugu, klase handiarekin". Laudorio hitz gutxi entzun ziren baina zapatuan Jamen, taldeari urrun eta nekata nabari zitzaion. Zuzeneko apartekoak emateko ospea dute hala ere. Beste batean izan behar-

ko da, Bergarakoak, behintzat ez du kalifikatzaile hori merezi eta. Agur kontzertua izateko, behintzat, ez du ematen daukaten guttia eman zutenik, tamalez.

ARETOAREN 10. URTEMUGA

Begarako Jam aretoa 10. urtemuga ospatzen ari da. Hori horrela, ekitaldi egitarau zabala dauka antolatuta datozen asteetarako. Datorren zapatuan, esaterako, II. Tecno Jaialdia egingo dute: Kike Pravda, Damon Jee edota Umek egongo dira, besteak beste.

zURE HIZKUNTZ ESKUBIDEAK BABESTEKO



Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua
Servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

2. (BN/L) ...
plos más antiguos, con sentido ...
eleberrigile. iz. Novelista.
eleberrigintza. iz. Novelística.
eleberriti. izond. (BN/L) Cuentista, chismoso, -a.
eleberritsu. izond. (BN/L) Cuentista, chismoso, -a.
elebide. s. Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua.
fig. Elebitasunerako bidea.
Hizkuntzari bide egiteko zerbitzua.
Inakik Elebidera jo zuen hizkuntz eskubide urraketa bat zela eta, kexa jartzera.
elebidun. adj./iz. Bilingüe.
elebitasun. iz. Bilingüismo.
elebitza. iz. Bilingüismo.

Jose Luis Iñarra zenaren bizitza eta lana jaso dute Jose Mari Velez de Mendizabal, Aramaioko idazleak eta abadearen ilobak, Eusebio Iñarrak. Iaz Pedro Salaberri

apaizaren urrezko ezteiak ospatzeko bazkarian otu zitzairen ideia biei eta urtebetean jaso dituzte dokumentu eta testigantzak. Etorkizunerako On Jose Luis

Iñarraren lana eta garrantzia finkatzeko beharra ikusi zuten eta lanari ekin zioten. Egubakoitzean aurkeztu zuten liburua Arrasateko parrokiari.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL | IDAZLEA

"Haren alderik ezagunena ez bada ere, euskararen alde lan asko egin zuen On Jose Luis Iñarrak"

Jon Berezibar

Alor askotan jardundako pertsona izan zen On Jose Luis Iñarra. Guztia hartu duzue?

Abadea izateaz gain gizona ere bazen edota, hobe esanda, gizon zelako izan zen abade. Eliza apostolutza egiteaz gain beste gauza asko egin zituen herrian. Kontuan izan behar da ere hark zein egoeratan aurkitu zuen Arrasate. Gerrako zauriak zabalik zeuden eta horretan lan egitera ere bidali zuten Elizatik, komunitate txiki horretan oreka lortzeko.

Gizarte-lan asko egin zuen, zeintzuk izan ziren haren ekarpenik garrantzitsuenak?

Zalantzarik gabe osasunaren alorrekoak. Bere estiloarekin herri guztia ezagutu zuen, sukalde guztiak ezagutu zituen, haien miseria eta alaitasunekin. Garai hartako Arrasateko errealitatea ezagutu zuen, zeuden gabezia izugarriekin, tuberkulosia tasa handia, gizarte baldintza txarrak, etxebizitza eskasak, jende meta-keta... Premia eta pobrezia asko zegoen. Euskararen alde eta kultura bultzatzeko ere hainbat ekimenen sortzaile izan zen. Haren babespean sortu zen lehen ikastola Arrasaten, garai hartan horrek suposatzen zuen erronkarekin.

Herritik kanpo ere sona handia izan ei zuen.

1960an euskal apaizek idatzitako gutun sonatu hartan parte hartu zuen hark. 339 apaizek sinatutako gutun horrek egundoko zalaparta sortu zuen eta bere kategoriarengatik zerrendan lehenen agertzen zen. Espainia-

rren mehatxuak nonahitik iritsi zitzaizkion orduan. Eliza euskaldunago baten aldeko kanpian bera buru izan zen. Parrokiaren atartearen Francoren garaian erregimenak ipinitako hilarri bat zegoen, Francoren bandoan eroritako arrasatearren izenekin. ETAK 67an apurtu egin zuen eta sekulako zalaparta sortu zen. On Jose Luis gai da orduko agintariei esateko, baita Elizakoei ere, hilarria berriz ere ipintzekotan eroritako guztien izenekin egin beharko zela. Orduan hori anatema zen eta harrikatu egin zuten; epaitua eta zigortua izan zen. Apaiza bai, baina bere herriarekin eta bere buruarekin konprometitutako pertsona izan zen.

Konpromiso horrengatik oraindik ere oroituazango da. Bizirik jarraitzen dute oroitzapenek?


"Garai hartako Arrasateko komunitate txikian oreka lortzeko lan egitekoarekin bidali zuten herrira"

"Bere estiloarekin, herri osoko sukaldeak ezagutu zituen, hango miseria eta alaitasun guztiekin"

Liburua idazteko hainbat jende elkarrizketatu nahi izan ditut eta haietatik jasotako hitza "itxela" da beti; sekulako oroitzapena gordetzen dute. Hitzaurrean diot iruditzen zaidala inoiz gutxitan lortzen dela halako definizio komun bat hainbeste jenderen artean: gizon konprometitua, osoa, zabala, herrikoia, jatorra... inork ez du gaizki hitz egiten On Jose Luisengatik, dena eman zuelako. Errematerako, tragedia greko batekoa izan zitekeen heriotza izan zuen, meza baten amaieran aldarean bertan hil zen eta horrek aztarna utzi zuen herrian. Horrelakoa izan zen haren hileta ere, kolore guztietako jendea joan zen eta ez ziren kabitu; herriko plazan egin behar izan zuten elizkizuna.

Haren garaikide izan zen Jose Maria Arizmendiarieta ere, Arrasateko azken historiako beste apaiz garrantzitsua. Omenaldi ugari egin zaizkio azken honi; garaia iritsi da On Jose Luis Iñarrarekin ere berdinekin egiteko?

Kooperatibismoaren sortzailea da Arizmendiarieta baina apaiza ere bazen hura. Ezin daiteke ulertu Arrasateko XX. mendeko historia txikia bi pertsonaia hauen ekarpenak kontutan izan gabe. Erantzuterik ez dago, baina zer gertatuko zatekeen Arrasaten On Jose Luis Iñarrak, Arizmendiarietaren nagusi zenak, utzi izan ez balio egin zuena egiten? Bi apaiz horiek on handia egin diote Arrasateri baina bat bakarrik, bestea gabe, ez zatekeen iritsiko iritsitako lekura. Horrengatik uste dut justizia egin behar zitzaiola On Jose Luisi ere, egindako lanarengatik.



Josemari Velez de Mendizabal eta Eusebio Iñarra.

Liburuarekin, hortaz, aurrez zeneukan On Jose Luisen irudi ona baieztatu besterik ez duzu egin.

Niretzat lasaitasuna izan da berarekiko nuen irudia egiazta-tu egiten dela. Azpimarratu nahi nuke ere, ze ez zaio hainbeste garrantzirik eman, On Jose Lui-

sek euskararekin sekulako harremana izan zuela. Euskara maite eta aldeko lan asko egingakoa da. Egunero bisitatzen zituen gaixoei bertsoak idazten zizkien eta horietako batzuk argitaratzeko asmoa daukagu. Azpimarratzekoa iruditzen zait hau.

"Arrasateko parrokoak" utzitako aztarna

Jende asko gerturatu zen egubakoitzean Arrasateko parrokiara On Jose Luis Iñarra zenaren biografia jasotzen duen liburuaren aurkezpena. 35 urte egin zituen apaizak Arrasaten eta aurten 30 urte beteko dira parrokiari bertan bihotzeko batek jota hil zela. Haren lanari, izaerari, herrian utzitako aztarnari eta hartu zituen konpromisoei erreparoa egin zieten ekitaldian hitza hartu zutenek.

Arrasatearren gogoetan "oroitzapen ezabaezina" utzi zuela diote liburuaren egileek eta hala baieztatu zuen parrokiari iluntzeko 20:00an bildutako jende piloak. "Gizon herrikoia, apala eta hurbila",

horiek Josemari Velez de Mendizabalek herritarren ahotik liburuan jasotako hitzak. Ekitaldian parte hartu zuten Velez de Mendizabal eta Eusebio Iñarrak gain-egungo Arrasateko parroko Jenaro Lekuna eta Inazio Lakuntza alkateak.

Euskaltzale eta bertsozalea ere bazen Iñarra eta ekitaldian haren hainbat bertso eder errezzitatu zituzten, euskararekiko zuen maitasunaren erakusle. Omenaldia amaitzeko Eusebio Iñarrak prestatutako ordu laurdeneko bideo muntaia eman zuten. Gainera, aurkezpena gerturatu zirenek liburu bana etxera eramateko aukera izan zuten.



Ortophonk eta Wagon Cookin' jazz taldeek joko dute zapatuan Elgetan

III. Debajazz musika jaialdiak antolatu du kontzertua, eta Debabarrenean egiten ez den bakarra izango da

Leire Kortabarria

Danbakako doinu martxosoez gain, musika lasaiagoa entzuteko aukera izango da Elgetako Espaloia antzokian, Debajazz jaialdiaren eskutik, aurten hirugarren edizioa duena. Iaz gertatu zen bezala, aurten ere jaialdi hori Elgetara ekarriko dute, eta Debabarrenean kanpo kontzertua hartzen duen herri bakarra izango da.

Errabal kultur elkarteak eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak antolatzen dute Debajazz jaialdia.

GASTEIZTIK ETA IRUÑETIK

Elgetan, bi euskal taldek joko dute, jazz zirkuaituan eta kan-

poan ere euren burua ezagutaraztea lortu dutenak: bata, Ortophonk taldea, Gasteizko zazpi lagunek osatua. Euren musika Debagoienara ekarri izan dute. Oraingoan ere, euren funky-jazz dibertigarriarekin ondo pasatzeko aukera izango da. Denetarik eraginek koloretzen dute euren musika: hip-hopak, 60ko eta 70eko musikak, musika latindarrak...

Bigarren taldea Xabier eta Luis Garaialde anai iruindarrekin osatzen duten Wagon Cookin' da. Elgetako kontzertuak urte bukaeran argitaratzeko asmoa duten diskoa dastatzen hasteko balioko du. Dantzarako musika egiten dute eta nu-jazz deitu izan diote euren estiloari. Brasilen bizi izandakoak direnez, hango musikaren eragin handia jaso dute.

Biek hilaren 28an joko dute, eta 22:30ean hasiko da saioa.

LEHIAKETA

Errabalek jazz kontzertuak eta lehiaketa ere antolatzen ditu batera. Aurten, lehiaketa geroxeago etorriko da, abendu alde-
ra, hain zuzen ere.

Labur

Debagoieneko parte-hartzaileak KZguneetako argazki lehiaketan

Bi debagoiendarrek parte hartu dute orain arte Jaurlaritzak antolatutako Euskadiko argazki zahar digitalizatuaren lehiaketan, KZguneen bidez: Martin Depedro bergararrak bi argazki bidali ditu, bata 1953ko Erramu Zapatuko sari banaketakoa, eta bestea 1970eko, Uberako eszena bat islatzen duena. Beste parte-hartzailea Jesus Uribe oñatiarra da, 1947an Arantzazura egindako bisita baten argazkiarekin. Orain arte, Gipuzkoako hiru herriko parte-hartzaileak daude, bi Debagoienekoak.

Bihar kaleratuko dituzte Oñatiko eskulan ikastaroetako zerrendak

Oñatiko eskulan ikastaroak beti dira arrakastatsuak, baina aurten inoiz baino jende gehiagok eman du izena, eta, denendako leku faltan, zeintzuek parte hartuko duten erabakitzeke zozketa egingo dute gaur, astelehena. Parte-hartzaileen zerrendak bihar, martitzena, ipiniko dituzte kultura etxean.

Honako ikastaroak egongo dira: orratz lanak, margotzea, zeramika, egurra lantzekoa eta, berria, bitxiak egitekoa. Bereziki arrakastatsua da hau: 15 leku daude eta 27 lagun apuntatu dira.

Umeendako magia ikuskizuna egingo du Eskoriatzan Eriz magoak

Eriz magoak 4 eta 12 urte bitarteko umeendako magia ikuskizuna egingo du eguenean, hilak 26. Eskoriatzako liburutegian izango da 18:00etan, eta ordubete inguru iraungo du eta euskaraz izango da.

Eriz magoak umorea eta magia bateratzen ditu. Gezurretako magoa denaren itxura emango du, baina azkenean erakutsiko du benetako magia egiten badakiela. Ikusleek parte-hartze handia izango dute ikuskizunean.

Hitzorduk



OÑATIKO MARRAZKIAK ERAKUTSIKO DITU HOLLANDAR ARTISTA BATEK | Gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, erakutsiko ditu lanok Sancti Spiritus unibertsitatean

Bernard Dorbeck margolari, marrazkilari eta eskultore herbeheretarrek Oñatiren gaineko hainbat marrazki egin ditu. Gaur, astelehena, horien erakusketa izango du Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen egoitzan, Unibertsitatean, 14:00etatik 17:30era, eta bihar, martitzena, 09:00etatik

13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara arteko bisita ordutegian.

Bergen-en jaioa, Herbehereetako hainbat hiritan eta Sumatran bizi eta lan egindakoa da, eta Herbehereetan zein kanpoan erakutsi izan ditu lanok. Webgunea du www.bernarddorbeck.nl helbidean.

ZINEMA I

• *El viento que agita la cebada* filma Arrasaten

Gaur, astelehena, emango dute abenturetako film hori Amaia antzokian, 20:30ean.

• *Kutsidazu bidea, Ixabel* filma emango dute Oñatiko

Gaur, astelehena, dago film hori ikusteko aukera Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

• *Crash* filma ikusteko aukera dago Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean. Film onenari Oscar saria irabazi du lan horrek.

• *Tapas* filma emango dute Oñatiko zineklub saioan

Eguenean, hilak 26, emango dute film hori kultura etxean, 20:00etan.

• *Pintar o hacer el amor* filma Arrasateko zineklubean

Eguenean, hilak 26, emango dute aipatutako filma Amaia antzokian, 20:30ean.

LEHIAKETAK I

• Antzuolarrendako argazki lehiaketa antolatu dute

Antzuolan jaio edo bizi direnendako argazki lehiaketa deitu dute. Gehienez ere, hiru argazki aurkez ditzake norberak, gai librean, paperean –udal-letxera– edo digitalak –*kultura@antzuola.net* helbidera. 150, 100 eta 90 euroko sariak daude.

• Aretxabaletako mendizale elkartearen argazki lehiaketa

Datorren urteko egutegirako argazkia lehiaketa bidez aukeratu du Murruxio Mendizale Elkartek. 150 euroko saria ere badago. Argazkiak euren egoitzara eraman behar dira, martitzenetan, 19:00-20:00, edo Aretxabaletako 34. posta kutxara bidali. Urriaren 31 da mugaeguna.

ERAKUSKETAK I

• Pedro Luis Ormazabal

argazkiak Aroztegi aretoan Pedro Luis Ormazabal argazkiak daude erakusketan Bergarako Aroztegi aretoan urriaren 29ra bitartean. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

• Edurne Eraña bergararrak

erakusketa du Eibarren Edurne Eraña bergararrak margolanen erakusketa ipini du Eibarko Topalekuan, eta aste osoan dago zabalik 19:00etatik 21:00etara; domekan, 12:00etatik 14:00etara.

• Elbruce mendiaren gaineko argazkiak Eskoriatzan

Kaukasoko Elbruce mendia-
ren inguruko argazkiak daude erakusketan Inkernu tabernan. Karmelo Oñate eskoriatzarraren argazkiak dira. Hil bukaera arte dago zabalik.

• Altuna Akizuren margolan

erakusketa dago Miñanon Juanjo Altuna Akizu margolari arrasatearrak *Espacios en construcción* izeneko erakusketa dauka Miñanon, Arabako Parke Teknologikoan. Paper gainean egindako 47 lan akriliko dira.

ANTZERKIA I

• Ugaztun eme baten irrikak

antzezlanaren Aretxabaletan Ugaztun eme baten irrikak izeneko bakarrizketa antzeztuko du Teresa Andonegi aktoreak hilaren 27an, egubakoitz, udal-letxe zaharretan, 22:00etan.

• ONCEkoek antzezlanaren egingo dute San Joxepen

Bihar, martitzena, Donostiako ONCE elkarteak *Terapia de grupo* antzezlanaren egingo dute San Joxepe elkartearen erretiratuendako, Bergaran.

BESTELAKOAK I

• Film emanaldia eta solasaldia Eskoriatzan

Diario de un skin filma emango dute etzi, eguaztena, Inkernu tabernan, 22:00etan; segidan, berriketaldia egingo dute.

• Rock'n'roll liburuaren

gaineko tertulia Arrasaten Aingeru Epaltzaren *Rock'n'roll* liburuaren komentatuko dute Arrasateko Literatur Solasaldietan. Bihar, martitzena, batu-
ko dira kultura etxean, 18:30ean.

Eguraldia



Temperatura goxoak eta hego haizeak gogor joko du asteen

Hego haizeak sartaldetik jotzen hasiko da eta nahasiago ibiliko da. Hodei dezente eta euri zipriztinen arriskua egongo da. Tenperaturak ere zertxobait jaitsiko dira. Iluntzean freskago egingo du. Martitzenean ere hego haizea izango da nagusi. Leku batzuetan gogor joko du, gainera haizeak. Hego hai-

zeari esker, goxoak izango dira tenperaturak. Eguazten eta egunean ere ez da eguraldia gehiegi aldatuko. Haizeak jarraituko du eta tenperaturek pixka bat gora egingo dute. Goi aldeko laino ugari egongo da. Egubakoitzean lainoak gutxitzen joango dira eta tenperatuak berdin mantenduko dira.

Guardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 23	irizar	Erquin kalea, 11 (943 79 12 39)
Martitzena, 24	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
Eguaztena, 25	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguena, 26	Ruiz Perez	Maalako arrabala, 31 (943 79 14 09)
Egubakoitza, 27	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)

BERGARA

Astelehena, 23	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Martitzena, 24	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguaztena, 25	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguena, 26	Urritikoetxea	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 26	Zabala	Barrenkalea 25 (943 76 16 87)

OÑATI

Astelehena, 23	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 24	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguaztena, 25	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguena, 26	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Egubakoitza, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)

ARETXABALETA

Astelehena, 23	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 24	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 25	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguena, 26	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 27	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 16	1 • 3 • 11 • 38 • 39 • 41
Osagarria: 22 Itzulketak: 7	
Martitzena, 72	12 • 18 • 26 • 32 • 39 • 43
Osagarria: 17 Itzulketak: 3	
Eguaztena, 18	12 • 20 • 28 • 31 • 32 • 41
Osagarria: 42 Itzulketak: 1	
Egubakoitza, 20	1 • 21 • 31 • 44 • 48 • 49
Osagarria: 13 Itzulketak: 4	

ONCE

Astelehena, 16	09.282
Martitzena, 17	17.108
Eguaztena, 18	78.023
Eguena, 19	Jai eguna
Egubakoitza, 20	62.291
Kupoitzarra (030 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 19	1 • 7 • 16 • 20 • 27 • 39
Osagarria: 49 Itzulketak: 1	
Zapatua, 21	11 • 20 • 25 • 29 • 31 • 44
Osagarria: 38 Itzulketak: 3	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Ikerketa.** Eusko Jaurlaritzak; Kultura Saila. 2 ikerketa-beka indibidual, Euskadiko II. Gazte Planari lotuta, EAEn gazteria-arloan ikerketa proiektu bat egiteko. Epea: azaroak 2.

EKINTZAK |

• **Kontzertua.** Fermin Muguruza. *Euskal Herria Jamaika Clash* aurkeztuko du BECen, azaroaren 11n. Sarrerak salgai: www.bbk.es.

IKASTAROKAK |

• **Boluntarioen prestakuntza.** Gipuzkoako Foru Aldundia. *Boluntarioen prestakuntza ikastaroa: aldatetarako gune bat (1. Zatia)*, Irunen. Urriaren 24an, 25ean eta 26an izango da. Epea: urriak 24.
• **'Sukaldaritza: Dieta terapeutikoa'.** KutxaZabal

Zentroa. Azaroaren 6tik 27ra. Astelehenetan, eguaztenetan eta barikutan. Epea: azaroak 6.

LEHIAKETAK |

• **Literatura.** Zipristin. Teknika librea izango da. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daitezke. Epea: urriak 26.
• **Argazkiak.** Gipuzkoako Argazkilari Elkarte eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Giza Eskubideei buruzko II. Argazki lehiaketa. Epea: azaroak 9.

LEHIAKETAK |

• **Digitalizazioko teknikaria.** Donostiako Udala. Kiroletako Udal Patronatua. Digitalizazioko teknikari lanpostu bat betetzeko lehiaketa-oposizio librea. Epea: azaroak 6.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Eider Abarrategi
Urriaren 9an, 2 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Imanol Gallego
Urriaren 18an. Zorionak artista! Urte askotarako Lagunen partetik.



ARRASATE
Maialen Garcia
Urriaren 18an, 4 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko Lagunak.



ARRASATE
Urki Garitaonandia
Urriak 21, urtebete, zorionak etxekeen partetik bereziki Ixone.



ARRASATE
Txomin Arriaran
Urriaren 21ean 5 urte. Zorionak etxekeen guztien partetik.



BERGARA
Feliciano Diez
Urriaren 24an, 94urte. Zorionak aitona biloba eta birloba partez.



ARRASATE
Maria Etxebarria
Urriaren 21ean. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE
Julen Abarrategi
Urriaren 22an, 5 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Nagore Arizmendiarieta
Urriaren 23an. Zorionak Nago! Koadrilakoak.



ARRASATE
Ekiñe Casado
Urriaren 22an, 4 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko Lagunak.



BERGARA
Ziortza Martin
Urriaren 19an urtebetetzea. Zorionak potxola! Goienako lantaldea.



BERGARA
Marilu Unamuno
Urriaren 25ean urtebetetzea. Zorionak zure lankideen partez.



ARETXABAETA
Odei Vazquez
Urriaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat. Anaia eta gurasoak.



ARETXABAETA
Leire Zubillaga
Urriaren 26an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat. Aitaita, amama eta izeba.



ESKORITZA
Nerea Zubiete
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



ESKORITZA
Ekaitz Oñate
Urriak 23an 7 urte, Zorionak flipau! Etxekeen guztien partetik.



OÑATI
Edurne Egaña
Urriaren 24an, urtebetetzea. Zorionak lagunen partez.



Jaiotakoak



Shayuri Gonsalbes Barquero
Arrasate • 3,265 Kg. Urriaren 15a. Gurasoak: Tawane (Brasil) eta Rafael (Arrasate). Argazkian aita-ekin.



Julen Dabila Simon
Aretxabaleta • 3,550 Kg. Urriaren 16a. Gurasoak: Maria Jose (Aretxabaleta) eta Juan Carlos (Arrasate). Argazkian amarekin.



Oier Cataños Andres
Oñati • 3,290 Kg. Urriaren 17a. Gurasoak: Onintza (Arrasate) eta Argider (Oñati). Argazkian umea kuman.



Haizea Gartzia Bustos
Antzuola • 3,300 Kg. Urriaren 18a. Gurasoak: Diana (Colombia) eta Nicolas (Antzuola). Argazkian amarekin.



Zaloe Unamuno Lopez
Bergara • 2,880 Kg. Urriaren 18a. Gurasoak: Mireia (Bergara) eta Josu (Bergara). Argazkian amarekin.




Unax Garitano Muñoz
Bergara • 3,570 Kg. Urriaren 18a. Gurasoak: Jaione (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian umea gurasoekin.



Eider Iparragirre Amozarrain
Eskoriatza • 3,050 Kg. Urriaren 19a. Gurasoak: Rosalia (Arrasate) eta Xanti (Eskoriatza). Argazkian umea kuman.



Andere Larrañaga Lete
Bergara • 2,870 Kg. Urriaren 20a. Gurasoak: Elena (Bergara) eta Andoni (Bergara). Argazkian Unai eta Bingen nebekin.



Uxue Lopez Lopez de Bergara
Arrasate • 3,360 Kg. Urriaren 20a. Gurasoak: Irantzu (Arrasate) eta Unai (Arrasate). Argazkian gurasoekin.



Aimar Uribetxebarria Grande
Arrasate • 3,350 Kg. Urriaren 21a. Gurasoak: Elena (Berriz) eta Mikel (Arrasate). Argazkian umea lo kuman.

Hildakoak

Ciriaco Fabian Mateo | Aretxabaletan, urriaren 22an.



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 01



Eneko Robledo Chorro
Bergara • 3,220 Kg. Urriaren 22a. Gurasoak: Arantxa (Bergara) eta Josean (Bilbao). Argazkian umea bapio lo.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Igo autobusera' | 11:10

Jose Luis Iñarraren biografia aurkeztu dute

Barikan aurkeztu zuten Arrasateko abadearen bizitza eta lana batzen dituen liburua. Horretaz jarduteko haren iloba Eusebio Iñarrari elkarrizketa egingo diote irratico kideek. Bestalde, asteburuko kirol kontuak ere landuko dituzte.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

Urbiako ermitara meza-tara joaten direnekin

Urbiako ermitan, maiatzetik azaroaren 1era bitartean, meza izaten da domeka eta jai egunetan. Horren gaineko erreportajea eskainiko dute gaur irratsaioan; Joseba Etxeberria frantziskotarra elkarrizketatuko dute, besteak beste.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 11:05

Tratu txarren inguruan berbetan

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Sare 2006 kongresua aztergai

Herri Irratia

FM 99.8

'Loiolako porrusaldan' | 12:05

'Sustraiez blai' munduko kulturen topaketa

GOITB programazioa

Astelehena, 23



Alberto Iñurrategi, Everestetik bueltan 21:15

Aste bukaerak emandako kirol kontuei gainbegiratu eta Alberto Iñurrategiri egindako elkarrizketa. Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Mandio.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Bizitegia.
- 16:00 Bideo klipak.
- 16:15 Jazzmina.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:00 Errugbia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea: 'N-I: Goierri aldenik alde'.
- 22:15 Erreportajea: Artzain txakur txapelketa.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ikusmir .
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 24



'Danbaka' lehiaketako kontzertuak 21:45

Danbaka musika lehiaketa GOITBn jarraitzeko aukera izango duzue: gaur, Bergarako Azkaiter Peloxen kontzertua eskainiko dizuegu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Erreportajea: 'N-I: Goierri aldenik alde'.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Didjeridu.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Erreportajea: Artzain txakur txapelketa.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Bideo klipak.
- 18:30 Bizitegia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka: Azkaiter Pelox.
- 22:15 16mm.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Mandio.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Harmailatik.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 25



Debagoieneko albisteak egunero GOITBn 20:45

Debagoienean gertatutako albisterik aipagarrienak egunero GOITBko albistegietan, Goiatz Aranaren eta Julen Iriondoren eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 16mm.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Elkartasun b ideak.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmailatik.
- 18:15 Hitz bitan.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Danbaka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Teknopolis.
- 22:15 Elkartasun bideak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 26




'Didjeridu': Kepa Errasti aktorearekin 22:15

Kepa Errasti dugu *Goenkale* telesaioko Alex. *Didjeridu* saioan aktore aretxabaletarra gertutik ezagutzeko aukera izango dugu.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 16mm.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 ErreTehnopolis.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 16mm.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Bideo klipa.
- 19:30 Bizitegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka: Drakes.
- 22:15 Didjeridu: Kepa Errasti.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea: 'N-I: Goierri aldenik alde'.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 27



Gerardo Markuleta 'Ilunpean' saioan 20:30

Gerardo Markuleta oñatiar idazlea izango da gaurko gonbidatua. Oihana Elortza kazetariak gidatutako elkarrizketa saioa.

- 08:00 Emisio hasiera.
- 08:05 Marrazkiak.
- 11:00 Klip@ .
- 11:15 Astekoak.
- 11:30 Iparrorratza.
- 12:00 Maritxu Kajoi 06.
- 13:15 Elkartasun bideak.
- 13:45 Klip@.
- 14:15 Marrazkiak.
- 15:45 Ilunpean.
- 16:15 Behazulo.
- 16:45 16mm.
- 17:15 Astekoak.
- 17:30 Marrazkiak.
- 18:45 Klip@.
- 19:15 Iparrorratza.
- 19:45 Erreportajea.
- 20:15 Zera dio.
- 20:15 Zera dio.
- 20:30 Ilunpean.
- 21:00 16 mm.
- 21:30 Behazulo.
- 22:00 Izan ziren.
- 22:15 Maritxu Kajoi 06.
- 23:00 Teknopolis.
- 23:45 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Nahi dugu jendearen partetik kritikak, ekarpenak... jasotzea, hau da, jendearen feed-back-a lortu"

JOSU VELASCO |
TRUKARO
Berriak, 2006-10-19



"Hamar urteotako balorazioa positiboa da; Motorhead bezalako talde bat ekartzea oso garrantzitsua izan zen"

PATXI OSA |
JAM ARETOKO ARDURADUNA
Berriak, 2006-10-20

Erreportajea

N-I: Goierri aldenik alde

Astelehenean, urriaren 23an,
21:45ean



Urriaren 23a: 104 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 23, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

DANBAKA-ko kamiseta bat.

- Aratz Astobiza Almas (Aretxabaleta)

ELGETAKO ESPALOIAn, Urriak 28an izango den "WAGON COOKIN" kontzerturako bi sarrera.

- Jon Arruti Velez de Mendizabal (Bergara)



Urriaren 30eko sariak

- Zortzi sarrera, azaroak 3an, ELGETAKO ESPALOIAn, DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



PAMIELA

argitaletxeko liburu sorta bat.

Hamarrekoa

EGOITZ LASA | AKTOREA

"Kasetean entzuten nituen ipuinak umetan; Mateo Txistu eta Txanogorritxo"

Oihana Elortza

1. Nola mantentzen dituz umeak geldi ipuinak kontatzen dituzun bitartean?

Saiatzen naiz euren mundura hurbiltzen. Ipuinak, hala ere, ez dira soilik umeendako, gurasoek ere ondo pasatzen dute, ez pen-
tsa.

2. Nolako ipuinak kontatzen zizkizuten zuri?

Ez naiz oroitzen, baina gogoan dut Mateo Txistu eta Txanogorritxoren ipuinak kasetean entzuten nituela.

3. Pisua du Wazemank saioaren arrakastak?

Oso gustura gaude. Jendeari gustatu zaio, arrakasta izan du eta oso pozik gaude. Euskaldunon umorea ez da desberdina, barre egiten dugu guk ere.

4. Beste zer ikusten duzu zuk telebistan? Oso telebista gutxi ikusten dut.

Pentsa, *Wazemank* ere lehen gehiago ikusten nuen, zapa-tuetan botatzen hasi direnetik ez dut uste behin ere ikusi dudarik. Bestela, *House* ikusten dut batzutan. *The Soprano* mafiosoen telesaila ikusten dut gustura, DVDan.

5. Egingo duzue sagardorik zuen sagar berde horiekin? Zukua ateratzen saiatzen gara, baina sagardoa baino, sagar erreak egingo nituzke nik, edo konpota, bestela. Sagardoarekin mozkortu eta pasatzea ere ez da komeni.

6. Heldu zaizkizu Earki Gatzik enpresaren etekinak? Oraindik ez. Egia esan ondo dabil enpresa. Oraindik ez du burtsan kotizatzen baina joan den urtean kirol arloko produktuak saltzen hasi zen eta aurten sukaldareroak merkaturatuko ditu.

7. Zeuk jarraitzen duzu burtsan? Inbertitzen duzu? Burtsatik gustatzen zaidan bakarra da J.B. Anduezak *Berria* egunkarian burtsako informazioari jartzen dion titularrak. Izugarriko *mala letxea* sortzen dit enpresa handiek zenbat irabazten duten jakiteak edo niri hil bukaeran zenbat gutxiago geldituko zaidan.

8. Arregitarren etxean edo Zarauzko hondartzan daude xeble gehiago? Zarauzko hondartzan, eta horietako asko, gainera, Debagoienakoak. Hainbeste kooperati-



JOSETXO ARANTZABAL

Ipuinak kontatzera etorri da Egoitz Lasa zarauztarra Antzuolako liburutegira. Aurretik ere egonda dago eta saiatu da oraingoan ipuin ezberdinak kontatzen. Sei, zazpi kontatzen ditu saiko, gutxi gorabehera. Dio errealitateak fikzioa sarri gainditzen duelako, xeble handiagoak daudela Zarautzen Arregitarren etxean baino eta horietako asko Debagoienekoak direla.

ben artean egonda, nabarmen nabaritzen zaizue gero hemen.

antzerkiarekin batera, historia osatuko duzulako.

9. Zergatik ikusi behar dut Kutsidazu bidea, Ixabel filma? Ondo pasako duzulako eta, liburuarekin eta

10. Kezkutzen zaitu Realaren egoerak? Batere ez. Aipatu ere ez dugu egiten gehienetan.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Kanpainak eta labirintoak

Beste behin ere Debagoienan lehenengoz; presoen eskubideen aldeko kanpaina berri bati ekin diote: hainbat herritarrek astebetetz gose greba egingo dute. Kanpaina ibiltaria izango da abenduaren 16an amaituko da Euskal Herriko hiriburuetan egingo diren ekitaldiekin.

Bitartean, aste honetan bertan, Estrasburgo izango da bake prozesuaren gaineko albistea; **Mayor Orejaren** eta bere lagunen aurpegiak keinuei erreparatu beharko diegu, benetan bakarrik daudela ikusten dutenean. Ez da gauza bera gertatu asteburuan Gueñeseko beharginekin ezta ere Garoñako zentral nuklearraren itxiera eskatzen dutenekin. Gasteizen eta Bilbon egin dira manifestazioak; badi-rudi herri honetako ohitura onak ez ditugula hain erraz alboratu, badakizue, asteburu manifestazioa egitearen hori! Katalunian ere egiten dituzte kanpainak, baina beste era batekoak dira: **Artur Masek** notariotik pasa aurretik Hollywooderako hautagai izateko asmotan dela erakutsi du eta **Joan Saurari** tokatu zaio esatea "follate a la derecha" zioten kondoiak banatzeko egitasmoa, alderdiok gazteena izan dela eta kendu egin du kanpaina.

Ba niri gustatu zait ekimena eta kanpaina modura bihurri samarra izan arren, DVDak baino joko gehiago ematen du. **Guillermo del Tororen** film berria ere gustatu zait: *El laberinto del fauno*. Gogorra, baina ederra da.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

TRIKITIXA
Bexamelak ta pastalak (Makela ta bixel) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kopa Junkerak) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik (Jai) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kazirako) | **ITSAS**
Kupela (Eskola eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdara (Abatz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kopa Junkerak) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Abatz / Maider) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikiok
Bagarei | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESE**

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

TRIKITIXA
Klusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**













Jaietakoak
Artillerer dale fuego | **ARTILLERO**
Marijia (Kopa Junkerak) | **JAJA**
San Fermín | **FERMIN**
San Martzialetako alardea | **SAN MARTZIAL**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoak) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorni) | **EUSKAL**
Euskalun berriaren balada (Oskorni) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorni) | **FURRA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic Iuep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu...Aitaren ta semea... | **AITAREN**
Hartu...Ansar | **ANSAR**
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu...Miami | **MIAMOL**
Independentzia | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazul (piteta) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txooiti | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratze, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatze, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea duan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone: deitu 123-er. * Movistar: deitu 609-er.
3. **ZALANTZAK:** Ez duzu zabalduz duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egindakigu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.